

CES
EGAB

CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO
EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE
ARAZOETARAKO BATZORDEA



2024
JARDUEREN
TXOSTENA



Memoria Sozioekonomikoa proiektatu eta balioetsi den urtea

Jardueren memoria honetan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2024an egindako jarduketak jasotzen dira. Ekitaldi hori, neurri batean, baldintzatuta egon da gure autonomia-erkidegoan hauteskunde-urtea izan delako. Egoera horrek, normalean, legeria-jarduera txikiagoa izatea ekarri ohi du, eta, ondorioz, batzordeak egindako irizpenen kopurua murriztea. Hala ere, oraingo honetan, EGABen jarduera-maila ez da murriztu, gure kontsulta-eginkizunari, hamahiru irizpen ematea ekarri duenari, dokumentu honetan ikus daitekeen jarduera-agenda handia gehitu zaiolako. Jarduera horien artean esanguratsuena EHUn udako ikastaro bat egitea izan da, Donostiako Miramar Jauregian. Ikastaro horren helburu nagusia gure EGABek urtero egiten duen Euskadiko egoera ekonomiko eta sozialari buruzko memoria zabaltzea eta balioestea izan zen. Gure Memoria Sozioekonomikoa urtero finkatutako eta esperotako dokumentua da, gure autonomia-erkidegoaren egoera sozial eta ekonomikoaren ikuspegi osoa eta zorrotza eskaintzen duelako. Ikuspegi hori iturri ofizialetatik soilik datozen datuetatik abiatuta egiten da, eta horrek bere seriotasuna eta zorrozatasuna bermatzen ditu.

Nire ustez tresna oso erabilgarria da, eta horregatik garrantzitsua da ahalik eta zabalkunderik handiena lortzea, eta, zalantzarik gabe, hori lortzeko ezinbestekoa izan da aipatutako udako ikastaroa, parte-hartzaile asko egon baitira eta oihartzun asko izan baitu. Gure asmoa hurrengo urteetan ikastaro honen ospakizuna sendotzea da.

Kontsulta-jarduera erakunde honetan funtsezkoa da eta EGABek Euskadiko politika ekonomikoan eta sozialean interes ekonomiko eta sozial desberdinen partaidetza gauzatzeko duen eginkizun nagusiari erantzuten dio; horri dagokionez, lehen esan bezala, hamahiru irizpenetan islatu da, hainbat gairi buruzko beste hainbeste lege-proiekturi edo dekretu-proiekturi buruzkoetan. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak gure proiektu batzuen balorazioa eskatu du eta batzuk argi eta garbi lotuta daude ingurumen-gaiekin, hala nola Euskadiko teknologia garbien zerrendarekin edo horiekin lotutakoekin, hala nola nekazaritza-, elikagai-, abeltzaintza- eta erlezaintza-industriak arautzeko dekretu-proiektuekin.

Erabilera turistikorako etxebizitzaren eta logelen erabilerari buruz ere galdetu digute, interes sozial handiko gaia baita. Izan ere, Euriborraren jaitsierak hipotekak merkatu dituen arren, etxebizitza eskuratzea kezka garrantzitsua bihurtu da, alokairuak gero eta garestiagoak direlako eta gero eta biztanle eskatzaile gehiago daudelako eta egoitza-parke gero eta gutxiago.

Era berean, genero-arrakalak murrizteko eta pertsona zaugarriak babesteko ahaleginak EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiari buruzko irizpenetan eta indarkeria matxistaren biktima izan diren umezurtzek jasotzen duten laguntza ekonomikoa arautzeko dekretu-proiektuan islatu dira. Horrelako helburuen alde egiten diren ekintzek beti dute onarpen ona genero-berdintasunarekin hain sentsibilizatuta dagoen euskal gizartean.

Aurreko guztia urte honetan egin dugu, eta aurten nazioarteko egoera geopolitikoari buruzko ziurgabetasun-testuinguruak jarraitu du, eta larriagotu ere egin da. Gainera, garrantzi eta eragin handiko hauteskunde-prozesuek markatutako ekitaldia izan da, hala nola Europako hauteskundeek edo Estatu Batuetako lehendakartzarako hauteskundeek, eta datozen hilabeteetan ikusiko ditugu horien ondorioak.

Hasieran esan bezala, Euskadin ere 2024an hauteskunde-prozesu bat bizi izan dugu, eta prozesu horren amaieran Imanol Pradales lehendakari izendatu eta Eusko Jaurlaritza berri bat eratu zen. Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin harreman ona izan dugu, ezinbestekoa baita Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzioak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Bukatzeko, jarduera instituzionalari dagokionez, aurten, Bartzelonan egin zen EGAB autonomikoen eta Espainiaren ohiko topaketan parte hartzeaz gain, jardunaldi bat antolatu dugu, Espainiako EGABekin lankidetzan, organo aholku-emaila horrek Europar Batasuneko Gobernantza Ekonomikoari buruz egindako txostena aurkezteko.

Atlantikoko Sare Transnazionalaren jarduerari dagokionez, esan behar da bereziki bizia izan dela 2024an. Sare honetan, makro eskualde atlantikoaren sorrerari buruzko txosten bat lantzen aritu gara, eta proiektu hori gure EGABek gidatu du. Gainera, aurten Atlantikoko Sare Transnazionalaren Europako I. Foroan parte hartu dugu. Foro hori aukera bikaina izan zen sare hori osatzen dugun bazkideen arteko harremanean sakontzeko, eta Europa mailako gai partekatuak jorratu genituen, eta horietan eskualdearteko lankidetzak funtsezkoa da.



Javier Muñecas Herreras
Euskadiko Ekonomia Garapenerako Batzordea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegiaren 16 b) artikuluan ezarri denez, besteak beste Jardueren Urteko Memoria onesteko eginkizuna du eratxikita Osoko Bilkurak.

Arautegian ezarritakoa betez, 2024ko ekitaldiari dagokion Jardueren Memoria egin da eta, hortaz, hauxe

ZIHURTATZEN DUT

Lehenik, Euskadiko eta Ekonomia Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2025eko martxoaren 5eko ezohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuela :

“Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako 2024ko Jardueren Memoria onestea”

Bigarrenik, Batzordearen Osoko Bilkurak aipaturiko erabakian onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik dakar argitalpen honek.

Eta ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut Bilbon, 2025eko martxoaren 5ean



Izaskun Astondoa Sarria
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen
Idazkari Nagusia

1. KAPITULUA Erekundearen informazioa

5



Historia, sorrera eta izaera	06
Araudi erregulatzailerak	06
Eginkizunak	07
Osaera	08
Kontseiluaren organoak	10
Ekonomiaren eta finantzaren araubidea	11
Baliabideen kudeaketa	11
Zerbitzu teknikoak eta administratiboak	13

2. KAPITULUA Jardueren Txostena

15



EGABen Legean ezarritako eginkizunak	
gauzatzea	16
Aurreko aholku-jardueraren eraginaren	
jarraipena	24
EAEko 2023ko egoera Sozioekonomikoari	
buruzko memoria	30
Organoen kolegiatuen bilerak	33

3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

37



4. KAPITULUA Komunikazioak eta argitalpenak

47



Komunikazioa	48
Argitalpenak	49



1. KAPITULUA Erakundearen informazioa

Historia, sorrera eta izaera
Araudi erregulatzaileria
Eginkuzunak
Osaera
Kontseiluaren organoak
Ekonomiaren eta finantzaren araubidea
Baliabideen kudeaketa
Zerbitzu teknikoak eta administratiboak

1. KAPITULUA Erakundearen informazioa

Historia, sorrera eta izaera

Egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak Lehen Mundu Gerraren amaieraren ondoko urteetan ditugu. 1919an, Lanaren Nazioarteko Bureau delakoa sortu zen nazioarteko batzar gisa, eta bertan, gobernuak, langileak eta enpresaburuek, parte hartzen zuten, lan-baldintzak hobetzeko nazioarteko legeria elkarrekin lantzeko xedez.

Harrezkero, ituntzeko lehen tresnak agertu ziren Europan, hau da, egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluen aurrekariak. Lehen erakundea 1925ean sortu zen Frantzian, eta geroago antzeko beste batzuk agertu ziren Europako beste herrialde batzuetan, bereziki, Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak sortu zuen, bere organo nabarmenen artean, Ekonomia eta Gizarte Batzordea. Funtsezko antzekotasunak daude horietan guztietan, beren izaerari eta eginkizunei dagokienez: organo aholku-emaileak dira, gobernuen politika ekonomikoan, gizarte- eta ekonomia-esparruetako ordezkarien parte hartzea ahalbidetzen dutenak eta, aldi berean, haien arteko elkarrikeria eta lankidetzak bideratzen dutenak.

Halaber, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluak ez du jokabide pasiborik, ezpada, berezko ekimena direnak direlako gobernu eta parlamentuek kontuan izan beharko lituzketen proposamenak edo ebazpenak mahairatzeko orduan. Aholkuak emateko organoa den aldetik, autonomia eta lokabea da gobernutik eta parlamentutik, eta haren txostenak lotesleak ez badira ere, aginduzkoak dira kasu askotan. Nolanahi ere, aintzat hartu beharreko iritzi kualifikatua ematen du kontseiluak.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, eta ekonomia eta gizarte ordezkariak Euskadiko politika ekonomikoan eta sozialean parte hartzea du xede.

4/1984 Legearen bidez sortu zen, eta haren arauak hainbat lege aldaketa izan dituzte. Egun, hauetan ezarritakoak eraentzen du EGAB: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legea, urriaren 29ko 433/2013 Dekretua eta 2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren erabakiak onetsitako Funtzionamendu Arautegia.

Araudi erregulatzailea

1979ko abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatuari buruzkoa (EAO, 306 zk., 1979-12-22) (EHAA, 32 zk., 1980-01-12koa)

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen [maiatzaren 17ko 8/2012 LEGE](#) (EHAA, 101 zk., 2012-05-24koa).

[2013ko urriaren 29ko 433/2013 DEKRETUA](#), Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (EHAA, 209 zk., 2013-11-4koa).

2013ko azaroaren 22ko Osoko Bilkuraren ERABAKIA, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena (2013-12-11ko EHAA, 232. zk.), Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren 2019ko martxoaren 22ko Erabakiaren bidez zuzendua ([2019-04-01eko EHAA, 63. zk.](#)).

1. KAPITULUA Erakundearen informazioa

Eginkizunak



EGABek nortasun juridiko propioa du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena ez bezalakoa, eta ahalmen eta beregaintasun osoa du legeak eratziki dizkion eginkizunak betetzeko.

EGABren egoitza Bilbon dago, eta bertan egiten dira Kontseiluaren organoen bilkurak.

Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, hura arautzen duen legearen arabera. Aurretiazko txosten horretatik daude salbuetsita Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren lege proiektuak, baita berau aldatzeko edo osatzeko legegintzako arauak ere. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak edukiaren berri eman behar dio EGABi.



Politika ekonomikoarekin eta sozialarekin loturiko lege proiektuei buruzko aginduzko informazioa ematea, Laneko Harremanen Kontseiluari atxikitako arloak alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzaren ustez, garrantzi berezikoak badira. Proiektu horretatik daude salbuetsita aurreko ekitaldietan onetsitako jarraipena dakarten dekretu proiektuak edo berrikuntza edo aldaketa nabarmenak ez dakartenak ere. Aurrekoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzak, aukeran, gai horien inguruko txostenak eska diezazkioke kontseiluari.

Aginduzko informazioa ematea Eusko Jaurlaritzak hartutako beste edozein administrazio ebazpenen inguruan, politika ekonomiko eta sozialarekin lotuta badaude eta Laneko Harremanen Kontseiluari bere lege arau-emailean dagozkion arloak alde batera utzita, betiere Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzi berezikoak badira.



Nahitaezko txostenak ematea Eusko Jaurlaritzak politika ekonomiko eta sozialaren arloan dituen plan orokorrei buruz.

Irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea, bere ekimen ez edo Eusko Jaurlaritzaren edo Eusko Legebiltzarraren eskariz, lehenengo bi zenbakietan aipatutako gaietarako buruz.



Urtero memoria bat egitea eta Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari aurkeztea, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomiko eta sozialari buruz dituzten gogoetak azaltzeko.

Eusko Jaurlaritzak prestatzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko jardura ekonomikoen plangintzan parte hartzea.



Bere eginkizunak betetzeko behar duen informazio guztia eskatu eta jasotzea Administrazio orokorreko organo eskudunetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein instituziotatik.

Aurreko idatzatietan aipatutako gaietarako proposamenak egitea Eusko Jaurlaritzari.



1. KAPITULUA Erakundearen informazioa

Osaera

Euskadiko EGABren Osoko Bilkura presidenteak, idazkari nagusiak eta hogeita hamabi kidek osatzen dute.

Presidenteak Javier Muñecas Herreras da eta idazkari nagusia Izaskun Astondoa Sarria.

Kontseiluaren Osoko Bilkura honela osatuta dago (EHAA 2023/09/20): ([20/09/2023 EHAA](#)):

8

Zortzi kide sindikatu-
erakunde eta -konfederazio
nagusien ordezkari izan

A

TITULARRAK	ORDEZKOAK
CCOO	Juan José López Díaz ² Santiago Martínez Pérez Alfonso Ríos Velada Gregorio Martín Benito
LAB	Irati Tobar Eguzkitza ³ Oihana Lopetegi Aranguren
UGT	Daniel González Taboada Juan Carlos Cárdenas Bonelli
Xuria Árza Vélez Raúl Árza Vélez	

¹ Arantza Martínez Tobalinaren ordezkari izendatu zuten ([06.09.2024 EHAA](#))
² Estibaliz Montero Mendoza ordezkari izendatu zuten ([06.09.2024 EHAA](#))
³ Iratxe Delgado Arribas ordezkari izendatu zuten ([18.10.2024 EHAA](#))

8

Zortzi kide
enpresa-konfederazioen
ordezkari izan

B

TITULARRAK	ORDEZKOAK
CONFEBASK	Silvia Ara Quincoces Ana Boto Sánchez Ibane Muniategi Etxabe ⁴ Marta Fernández Jiménez ⁵ Eduardo Arechaga Cilleruelo Fernando Raposo Bande José Miguel Ayerza Mendiburu Juan Ugarte Aguirrezabal
Virginia Múgica Conde Yoana Arambalza Zalbidea Pablo Martín Goitia Gonzalo Salcedo Bilbao Fco. Javier Sasigain Sáez de Buruaga Adolfo Rey Gómez Aitor Otaola Díez de Alda Paul Liceaga Jauregui	

⁴ Ana García Polancoren ordezkari izendatu zuten ([15.03.2024 EHAA](#))
⁵ Juan Lasa Ibarrecheren ordezkari izendatu zuten ([14.02.2024 EHAA](#))



1. KAPITULUA Erakundearen informazioa

8

Kide bana Euskal Autonomia Erkidegoko ondoko sektore, erakunde, entitate edo elkarteen ordezkaritzan

C



TITULARRAK

MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ITSASKETA GANBERAK

Jesús María Corres Santos

KOOPERATIBAK

Patxi Olabarria Barandica

ARRANTZA ERAKUNDEAK

Anertz Muniategi Bilbao

KONTSUMITZAILEEN ERAKUNDEAK

Jon Ariño Gallego

AURREZKI KUTXAK ETA FINANTZA ERAKUNDEAK

Pedro Martínez de Alegría Pinedo

LAN-SOZIALTATE ANONIMOAK

Jone Nolte Usparicha

GIZARTE EKINTZAREN HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEAK

Mikel Barturen Nuño

GIZARTE EKINTZAREN HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEAK

Garikoitz Nazabal Etxabe

ORDEZKOAK

Gregorio Rojo García

Rosa M^a Lavín Ibarra

Miren Garmendia Ceberio

Koldo Nabaskues Simón

José Ignacio Beristaín Echave

Iñigo Soto Uribe

Elena Blanco Meruelo

Iñigo Bilbao Rekagorri

8

Zortzi kide EGABen eginkizunei lotutako arloetan adituak

D



TITULARRAK

Idoia Peñacoba Etxebarria

Arantza Estefanía Larrañaga

Itziar Alkorta Idiakez

María Silvestre Cabrera

Osane Oruetxabarria Fernández de la Peña

Aitor Alzola Martínez de Antoñana

Jon Barrutia Güenaga

Joseba Madariaga Ibarra



1. KAPITULUA Erakundearen informazioa

Kontseiluko organoak

Kontseiluak kide anitzeko organoak, Osoko Bilkura eta batzordeak ditu, eta, gainera, pertsona bakarreko bi organo, Lehendakaritza eta Idazkaritza Nagusia.



KIDE BAKARREKO ORGANOAK

PRESIDENTZIA

Kontseiluaren ordezkaritza du eta horren jarduerak artezten ditu; gainera, bilkuren deiak egin, horietan buru jardun eta moderatu egiten ditu.

IDAZKARI NAGUSIA

Administrazio-zerbitzuak eta zerbitzu teknikoak zuzentzen ditu, Kontseiluaren funtsen gordailuzaina da eta dokumentazioa zaintzen du.

KIDE ANITZEKO ORGANOAK

OSOKO BILKURA

Presidenteak zuzentzen duen Osoko Bilkura dugu Kontseiluaren erabakiak hartu eta bere nahiak agertzeko organo gorena. Presidenteak, kontseilukideek eta Idazkari Nagusiak osatzen dute Kontseiluaren Osoko Bilkura. Osoko Bilkurak ondoko eskumenak dauzka:

- Presidentearen bete behar duen pertsona proposatzea Lehendakariari eta, Osoko Bilkuraren arlo horretako erabakirik egon ezean, kargua bete behar duen pertsonari buruzko kontsulta jasotzea Lehendakariaren eskutik.
- Kontseiluari esleituriko eginkizunak betetzean, erabaki egokiak hartzea.
- Jardunbideari buruzko barne arautegia prestatu eta onartzea, bai eta Kontseiluaren jardunbide-arautegia gara dadin beharrezkoak diren artezpideak eta jarraibideak onartzea ere.
- Lan-batzordeak sortzea eta desagitea, haien eskumenak eta jardunbide-arautegia zehaztea .
- Kontseiluaren aurrekontua onestea.
- Kontseiluaren langileria onestea, aurrekontuan sartzeko.
- Bateriaezintasunak aztertzea eta Kontseiluko edozein kontseilukideren betebeharrak bete ez direla adieraztea.

BATZORDE IRAUNKORRA

Jardunbideari buruzko arautegiak sortu duela, Batzorde Iraunkorra EGABeko Presidenteak, Idazkari Nagusiak eta Kontseilua osatzen duten talde bakoitzeko lau kidek ere osa dezakete. Bere eginkizunen artean, aipatzekoa da Batzordearen Osoko Bilkuraren erabakiak betetzen direla zaintzea.

LAN BATZORDEAK

Osoko Bilkuraren eginkizuna da lan-batzordeak sortzea eta horiei aginpideak esleitzea.

Lan-batzordeak ondokoak dira:

Sozial Garapenerako Batzordea, María Silvestre da lan-batzorde horretako batzordeburua.

Ekonomiaren Garapenerako Lan-batzordea, Arantza Estefanía Larrañaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.

Memoria Sozioekonomikoa Lan-batzordea, Jon Barrutia Güenaga da lan-batzorde horretako batzordeburua.

1. KAPITULUA Erakundearen informazioa

Batzordearen ekonomia-eta finantza

Autonomia ekonomiko-finantzarioaren printzipioa betez, bere aurrekontua onetsi eta betearazten du Kontseiluak. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako zenbatekoaren bidez finantzatzen da aurrekontua.

Kontratatzerakoan, Kontseiluak sektore publikoaren kontratuen arloan indarrean dagoen legeria bete behar du, herri administrazioetat jotzen den erakundea baita.

Kudeatzeko baliabideak

2025ko AURREKONTUA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1.677.002,00 €-ko aurrekontua aurkeztu du 2023ko ekitaldian; zenbateko horren 1.675.802,00 € EAEko Aurrekontu Orokorren kargura joan dira eta 1.200,00 € finantza-sarreraren kargura.

2023ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu arrunta honako kapitulu handietan banakatu da:


	AURREKONTUA	GAUZATUA	MAILA
SARRERAK	1.717.698,00 €	1.741.897,47€	101,41 %
IV.- KAPITULUA - Transf. Dirulaguntzak gastu arrunta	1.715.298,00 €	1.715.298,00 €	100,00 %
Eusko Jaurlaritza	1.715.298,00 €	1.715.298,00 €	100,00 %
V.- KAPITULUA - Ondare sarrerak	2.400,00 €	26.599,47 €	1.108,31 %
GASTUAK	1.717.698,00 €	1.461.557,91 €	85,09 %
I.- KAPITULUA - Langile gastuak	752.101,88 €	667.195,60 €	88,71 %
II.- KAPITULUA - Jaurbide gastuak	952.641,12 €	788.699,92 €	82,79 %
VI.- KAPITULUA - Inbertsioak	12.955,00 €	5.662,39 €	43,71 %
EMAITZA	0	280.339,56 €	

* 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren datuak behin-behineko itxierari dagozkio, eta urteko ikuskaritzaren emaitzen zain daude.

1. KAPITULUA Erakundearen informazioa


GASTUEN BETEARAZPENAREN

BILAKAERA KAPITULUA



AURREKONTUAREN GAUZATZEAREN


BILAKAERA



Zerbitzu teknikoak eta administratiboak

Kontseiluak, bere eginkizunak egoki betetzeko, baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak ditu.

Memoria hau onetsi den egunean, presidentea eta idazkari nagusiaz gain, langileen plantilla honako hauek osatzen dute:





2. KAPITULUA Jardueren Txostena


EGABen Legean ezarritako eginkizunak
gauzatzea
Aurreko aholku-jardueraren eraginaren
jarraipena
EAEko 2023ko egoera Sozioekonomikoari
buruzko memoria
Organoen kolegiatuen bilerak

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Euskadiko EGAB arautzen duen legean aurreikusitako eginkizunak betetzea

Emisión de Dictámenes:

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2024. urtean Euskadiko EGABek hamahiru irizpen eman zituen, bat lege-aurreproiektu bati buruzkoa, ordena-proiektu bati buruzkoa eta hamaika dekretu-proiektuei buruzkoa.



IRIZPENAK

1/24

1/24 IRIZPENA, urtarrilaren 29koa, “Euskal ondare-zuzenbidearen eta familia-ondarea eta -enpresa babestearen arloko berezitasunaren gaineko lege-aurreproiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea

Sarrera-data: 2023-12-18

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen du Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak egindako araua izapidetzea, eta baloratu egiten du euskal foru-zuzenbideko erakundeak egungo gizarte-errealitatera egokitzeko eta orain arte sakabanatuta zeuden arauketak legezko testu bakarrean biltzeko asmoa.

Araua xedea Euskal Zuzenbide Zibilararen ekainaren 25eko 5/2015 Legean erdizka jasotako ondare-zuzenbideko printzipioak garatzea da, baserrien erregimen osoa eta landa-alokairuena barne. Gainera, lege horrek, Bizkaiko enberraren eta Gipuzkoako baserriaren eskubidearen erregulazioaren zati handi bat hartuko du bere baitan eta ondare-zuzenbideko printzipiotzat hartuko ditu. Printzipio horiek, oro har, ondasun jakin batzuen transmisioan aplikatu daitezke, testatzeko ahalmenaren mugagisa hartu ordez.

Batzordeak pentsatzen du euskal zuzenbide zibilararen eskumena oso errotuta eta ezarrita dagoela bai baserriak eskualdatzeko arauak dagokienez, bai tronkalekotasunari, foru-sakari edo horien lurralde-eremuari buruzko arauak dagokienez. Ez dago inolako zalantzarik ezta ere arau horiek historikoki nekazaritzako ustiatzei ez ezik, protoindustrialei ere, hala nola burdinola edo ehotzei, dagozkien jabetza-kuotei ere aplikatzeari buruz.

Lege-aurreproiektu honek ondare-zuzenbideko arauen berrikuspena eta garapena aprobetxatzen du bere ekintza-eremua baserriak haratago zabaltzeko, bere eskumenen barruan, eta Euskal Zuzenbide Zibilararen Batzordearen gomendioei jarraituz.

Hala ere, EAEko EGABek uste du legeak zuzenbide zibilararen ikuspegi eksklusibotik baino ez duela jardun behar, merkataritza-zuzenbidearen eremuan sartu gabe.

Irizpenean egindako berariazko oharren artean hauek azpimarratu behar dira:

Aldameneko landa-finka erosteari eta atzera eskuratzeari eta baserria berriz batzeari buruzko artikuluan, EGABek proposatzen du luzatu egin beharko litzatekeela eskubidearen onuradunei zuzeneko notario-jakinazpenaren bidez salmenta informatzeko hilaibeteko epea. Gainera, Batzordeak uste du eskualdaketa prezioa gehitu beharko litzatekeela jakinarazpena baliozkoa izan dadin jaso beharreko baldintza gisa. Eraikitze, berreraikitze, landatzeko edo instalatzeko eskubideari dagokionez, lurralde-antolamenduko arauak gehitzea planteatzen du.

Era berean, gomendatu zuen arauketa xeheagoa egin beharko litzatekeela igarotzeko zortasun-eskubidea egikaritzeko moduaren inguruan eta energia berriztagarriak instalatzeko ikasketak, ebaluazioak edo planak egiaztatu beharraz gain, administrazio-onespenak edo -baimenak izatearen beharra gehitu beharko litzatekeela.

Baserria errentamendu-kontratuan atzera egitearen inguruan, Batzordeak uste du zehaztu egin beharko liratekeela zein kasutan jarraituko lukeen errentariak atzera egin arren, familia-etxean bizitzeko eskubidea duten pertsonen errentamenduak, eta errenta ordainduta egotea edo ez egotea zehaztu beharko litzatekeela.

Horrez gain, Batzordeak uste du arrazoizkoagoa dela lagapenaren edo azpierreantamenduaren jakinarazpen-betebeharra formalizatu aurretik egitea, eta ez ondoren.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

2/24

urtarrilaren 29koa, "Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektuari" buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024ko urtarrilak 8.

Emaitza: El Kontseiluak egokitzen du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bidalitako dekretu-proiektua izapidetzea. Bere xedea nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzea da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea, EAEko administrazio publikoen tresna izan dadin, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorea planifikatzeko, antolatze eta garatzeko behar den informazio guztia modu iraunkor, integratu eta eguneratua izateko. Orain dela hamar urte gaur egun indarrean dagoen 422/2013 Dekretua argitaratu zenetik, behar berriak sortu dira eta, horregatik, beharrezkoa da araua eguneratzea.

Zehazki, 39/2015 Legeak pertsona juridikoak eta profesionalak administrazio publikoekin bakar-bakarrik kontaktu elektronikoa izatera behartzen ditu eta, kontrara, indarrean dagoen 422/2013 Dekretuak xedatzen du nekazaritza- eta elikadura-industrien erantzukizunpeko adierazpena aurrez aurre edo telematikoki aurkeztu daitekeela. Gainera, 1054/2022 Errege Dekretua onetsi eta gero (oinarrizko arau horrek administrazioak estatu osoan nekazaritza- eta baso-sektorearen kudeaketa eta antolamendu zuzenerako garatzen dituen informatika-sistemak arautzen ditu), ezinbestekoa da EAEko Nekazaritza- eta Elikadura-industrien Erregistroa eta SIEK Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustategien eta Nekazaritza Ekoizpenaren Informazio Sistema elkarrekin konektatuta egotea. Horrenbestez, hori ere Dekretu berrian jaso beharko da.

Arauk nekazaritza- eta elikadura-industriaren behar berrietara eta, eraginpeko sektoreetan lege-segurtasunari laguntzeko arau-aldaketetara egokitu nahi duen neurrian, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak balorazio positiboa eman dio aurkeztutako dekretu-proiektuari. Halaber, gaur egun EAEn Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza eta Kalitate eta Elikadura Industrien Zuzendaritza daudenez, arrazoizkotzat jotzen dugu testuan aldaketa hauek egitea: "nekazaritza- eta elikadura-industrietako zuzendaritza eskuduna" jaso beharrean, "elikadura-industrietako zuzendaritza eskuduna" jasotzea, eta Dekretuaren izenburua aldatzea baloratzea, baita arautzen den erregistroaren izena ere.

Gainera, Batzordeak baldintza bat gehitzea proposatzen du nekazaritza- eta elikadura-industrietan lanean hasteko. Zehazki, industria horiek Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea eta nahitaezko osasun-baimena izatea.

Jarduera hasteko erantzukizunpeko adierazpenari dagokionez, aipatzen da adierazpen horrekin ahal eskuratuko dela estatu osoan dagokion jarduera garatu ahal izateko, baina arrantzontzien kasuan, jarduera gehienetan estatuaren jurisdikziotik kanpoko uretan gauzatzen denez, hori Dekretuan jaso beharko litzateke. Gainera, gomendagarria da hau zehaztea: arauak erantzukizunpeko adierazpenetako datuak edo informazioa zehatzak ez direnean, faltsuak ez direnean edo horrelakorik jaso ez denean edo agintaritza eskudunean aurkeztu ez denean edo deklaraturakoa betetzen dela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu ez denean ebazpena emateko dekretututako epearen barneko egun baliodunak kontuan hartzen dituela.

Azkenik, eranskinean zenbait aldaketa egitea proposatu zen araua argiagoa izateko. Horretarako, zehatzago azaldu beharko lirateke kasu bakoitzean zein gai arautzen diren.

3/24

otsailaren 2koa, "EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2030 Estrategiari" buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-01-22.

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak EMAKUNDEK -Emakumeen Euskal Institutuak- bidalitako "EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2030 Estrategiari" buruzko txostena eman zuen. EAEko EGABek uste du ekimena oso garrantzitsua dela, legezko agindua betetzen duela eta politikaren, ekonomiaren eta gizartearen arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko beste pauso bat dela. Hala eta guztiz ere, eta ekimena positibotzat jo arren, Batzordeak uste du izapidetze-unea ez dela egokia, hainbat arrazoi tarteko.

Lehenik eta behin, izapidetzeko (eta ez onartzeko) aurkeztu zelako legegintzaldia bukatu eta hilabete gutxira.

Bigarrenik, Batzordeak uste duelako beharrezkoa dela denbora eta mekanismoak gaitzea eraginpeko agenteek eta taldeek izapidetzearen aurreko prozesuan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Horrekin lotuta, EAEko EGABek gogorarazten du estrategiaren ardatzetako bat gobernu ona dela. Horregatik, EGA-Beko erakunde guztiei parte hartzeko aukerarik eman ez zaiela deitoratzeaz gain, Batzordeak azpimarratzen du ba-

2. KAPITULUA Jardueren txostena

daudela gobernu ona osatzen duten espazio batzuk, hala nola Gizarte Elkarriketako Mahaia eta Elkarriketa Zibilko Mahaia, eta horiei ez zaiela galdetu.

Eta, hirugarrenik, garrantzitsua da aipatzea estrategia-proposamenak EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako VII. Planaren ebaluazio-emaitez jaso beharko litzatekeela, modu horretan, estrategia sortzen parte hartu dezaketen irakurleek argi izan dezaten zeintzuk izan diren aurreko plana betetzearen emaitzak. Horretaz gain, zehaztu beharko litzateke nola lortuko diren azaldutako helburuak eta xede espezifikoak eta, azkenik, gobernuan berdintasun-neurri horiek ezartzeak izango lukeen kostuaren kalkulua adierazi beharko litzateke eta estrategiak aurrekontu propioa eta xehea izan beharko luke.

EAEko EGABek, horren inguruan uste du strategiaren egiturak eta ikuspegi metodologikoak ez dutela errazten estrategia oso-osorik ulertu ahal izatea. Ez da zehazten nola jardungo den helburuak lortzeko, ezta ekimen bakoitzerako inbertsio ekonomikoa ere. Horregatik, zaila da egokiak ote diren baloratzea.

Kontsulta-organoaren ustez, aurrekontu-zuzkidura kalkulatu gabe ezin da jakin ea nahiko baliabide teknikorik eta ekonomikorik dagoen estrategia hedatzeko eta betetzeko.

4/24 urtarilaren 22koa, “portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretu-proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-02-02.

Emaitza: Batzordeak egokitzat jotzen du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bidalitako araua izapidetzea. Arauaren xedea portuetako udal-kontseiluak portuen arloko aholkularitza, kontsulta eta eztabaidarako kide anitzeko organo gisa sortzea da. Erakunde horiek EAEn portuen eta itsas gaien arloan eskuduna den administrazio orokorreko sailari atxikita egongo dira eta erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 4.1 artikulua garatuz sortuko dira.

Batzordeak uste du dekretu-proiektu horrek erakundeen eta gizartearen parte-hartzea erraztuko duela eta portua duten udalerrietan portu-administrazioaren eta udal-administrazioaren arteko harremanak eratuko dituela eta, modu horretan, portuetako instalazioak eta azalerak hobeto erabili eta kudeatuko direla. Horrenbestez, izapidetzearen aldekoak gara.

Halaber, EGABek berariazko gogoeta batzuk jasotzen ditu aztertutako testua hobetzeko proposamen gisa.

Alde batetik, komeni da arauan zehaztea kontseilu bakoitzean parte hartzen duten bi administrazioak autonomia-erkidegoko administrazioa eta kasuan kasuko udal-administrazioa direla. Gainera, uste dugu zehaztu beharko litzatekeela nork erabakiko duen tratatutako kontuak organoaren eskumenen gaindikoak diren ala ez, eta aktetan gehiegikeriaren arrazoiak justifikatu beharko dira.

Halaber, egokitzat jotzen dugu Bermeoko Portuko Kontseiluak alturako arrantza-flotaren ordezkartza izatea.

5/24 martxoaren 5koa, “Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzat dirulaguntza arautzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa”

Comisión: Comisión de Desarrollo Social

Fecha de entrada: 13 de febrero de 2024

Resultado: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jotzen du Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak bidalitako “Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzat dirulaguntza arautzen duen dekretu-proiektua”.

Arauaren xedea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzat dirulaguntza arautzea da, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 61.4 b) artikuluan aurreikusia, baita laguntza emateko baldintzak eta aplikatu beharreko prozedura zehaztea ere.

Batzordeak positibotzat jotzen ditu ezarritako adin-tarteak eta 25 urtera arte luzatzeko aukera egotea menpekotasuna edo desgaitasuna duten edo araututako ikasketak edo formakuntzak egiten ari diren seme-alaba umezurtzen kasuan. Modu berean, egokitzat jotzen du laguntza eskuratzeko edo mantentzeko baldintza batzuk salbuestea, adibidez, EAETik kanpo ikasten dauden kasuan bizileku eraginkorrarena edo zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean izan beharra. Izan ere, horrek bermatzen du kolektibo behartsuek edo zaurgarritasun-egoeran daudenek laguntzak jasoko dituztela.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Hala eta guztiz ere, arauan ez dago indarkeria matxistaren definiziorik eta ez da argitzen ea indarkeria matxista bikotekideak edo bikotekide ohiak egindakoa den soilik. Horrela izango balitz, familia barruko indarkeriak sortutako umezurtzen kasuetan laguntzak jaso ahal izatearen aukera galduko litzateke. Gainera, nahiz eta aipatzen den kalkulatzeko zaila dela, komeniko litzateke laguntzen kostuak kalkulatzeko.

Azkenik, Batzordeak zenbait berariazko ohar egin zituen aztertutako testua hobetzeko proposamen gisa, adibidez, argitu beharko litzateke amak hiltzean sortzen den kaltearen erreparazioak ez duela arazorik sortu behar bestelako kalte-ordainak jasotzeko eskubideak izanez gero.

6/24

apirilaren 15ekoa, “Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen Agindu- proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-03-20.

Emaitza: Batzordeak egokitzen du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bidalitako araua izapidetzea. Arauaren helburua Euskal Autonomia-Erkidegoko Ingurumen-administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikulua araututako teknologia garbien euskal zerrenda eguneratzea eta onestea da. Zerrenda hori aginduaren eranskinean jasota dago, eta asmoa ingurumena aintzat hartuta lehentasunezkoak diren teknologiak identifikatzeko jarraibideak finkatzea da, modu horretan, ekoizpen-prozesuen efizientzia sustatzeko ekoizpen-sarean ingurumen-jokaera hobea duten ekipoak ezartzearen bitartez.

Horrekin lotuta, tresna fiskal bat lantzen da teknologia horiek enpresen prozesuetan txertatzea bultzatzeko eta, besteak beste, zerga-neurriak eta gastu-politikak erabiltzen dira horretarako.

Horregatik, Batzordeak egokitzen du zerrendako teknologiak eguneratzea. Izan ere, berrikuntza teknologiko horiek ezartzeagatik zerga-neurriak edo dirulaguntzak jaso ahal dituzten enpresek laguntza hobea emango dute jasangarritasunerako, ekonomia zirkularrerako eta klima-aldaketaen aurka borrokatzeko.

Beste alde batetik, EAEko EGABek uste du nahiz eta egokia den zerrendan sartzeko teknologien hautaketa-prozesua diziplinarteko esperientzia duen Batzorde Teknikoak egitea, batzorde horretatik kanpoko ezagutzak leku handiagoa izan beharko lukeela, modu horretan, aginduaren informazio publikoko izapidetzeak aukera eman diezaien interesdunei identifikatutako teknologien inguruko iritziak emateko eta batzordeak baloratzeko teknologia berriak proposatzeko.

7/24

apirilaren 30ekoa, “Etxeko animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen dekretu-proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-04-09.

Emaitza: EAEko EGABek egokitzen du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bidalitako “Etxeko animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen dekretu-proiektua”.

Arauaren xedea da arauturik uztea 9/2022 Legean eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legearen Erregelamendua onesten duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan azaltzen den foru-erakundeen baimena zer irizpideren arabera eman behar den albaitaritzaren aldetik eta animalien ongizatearen aldetik. Helburua ikuskizunetan eta aisialdi-jardueretan parte hartzen duten animalien babesa eta ongizatea bermatzea da.

Gainera, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirol-jardueraren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak berariaz jasotzen du animalien osasuna eta ongizatea babestea, baldin eta animalia horiek kirol-jardueretan esku hartzen badute eta animaliek parte hartzen duten lehiaketetan albaitariak egotea nahitaezkoa dela.

Batzordeari aurkeztu zitzaion dekretu-proiektuaren helburua foru-organoen baimenak emateko albaitaritza-irizpideak eta animalien ongizate-irizpideak arautzea denez, Batzordeak egokitzen du eta beharrezkotzat jotzen du onartzea, baina berariazko ohar batzuk egin zituen aztertutako testua hobetzeko proposamen gisa.

Alde batetik, proposatu genuen hobeto definitu behar dela zein kasutan izan daitezkeen ikuskizunak eta aisialdi-jarduerak zirkukoak eta/edo ibiltariak. Gainera, egokia litzateke eranskin bat sartzearen aukera baloratzeko, horren bitartez, askotariko jardueretan araudia betetzen ote den jarraitu ahal izateko.

2. KAPITULUA Jardueren txostena



8/24

ekainaren 28koa, “farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzen duen dekretu-proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-06-10.

Emaitza: Batzordeak egokitzen du Osasun Sailak bidalitako araua izapidetzea. Bere helburua EAEko farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala sortzeko eta abian jartzeko baimen administratiboak eskuratzeko eska daitezkeen betekizun teknikoak eta gutxieneko baldintzak ezartzea da.

Tradizionalki, farmazietan, arreta farmazeutikoa emateaz gain, bestelako funtzio profesionalak eta sanitarioak ere egin izan dira, adibidez, analisi klinikoak, ortopedia eta optika. Uztailaren 2ko 165/2002 Dekretuak atal horiek arautu zituen eta atalok bete beharreko baimenen araubidea eta gutxieneko baldintzak zehaztu zituen. Ondoren, Osasun Lanbideen Antolakuntzari buruzko 44/2003 Legeak Giza Nutrizioko eta Dietetikako Diplomadunaren unibertsitate-titulu ofiziala arautu zuen, eta, gero, UPV/EHUko Farmazia Fakultateko Farmazia eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradu Bikoitza ezarri zen. Gauzak horrela, farmazia-lizentziatu askok diplomatura ere badute eta, hala, farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala bertan eskaini ahal diren osasun-funtzio eta -zerbitzu gisa arautu behar da.

Aurkeztutako dekretu-proiektuaren helburua farmazia-bulegoetan garatzen diren arreta farmazeutikoko funtzio eta jarduera profesional osagarrietan giza nutrizioarenak eta dietetikarenak txertatzea denez, Batzordeak egokitzen du onestea, baina zenbait berariazko ohar eman zituen testua hobetzeko proposamen gisa.

EAEko EGABek uste du egokia litzatekeela exijentzia baten inguruan hausnartzea; zehazki, farmazia-bulegoko titularrak Giza Nutrizioko eta Dietetikako diplomatura titulazio ofiziala edo unibertsitate-gradua izan beharra. Izan ere, interes orokorrekoa da zerbitzu horiek farmazia-bulegoetan ematea erraztea.

Modu horretan, farmaziaren titularra ez den kontratatutako pertsona batek titulu hori izateko aukera ematea aldi iragankortzat jo daiteke, zerbitzu-emate horretan beren-beregi espezializatutako jarduera-sektore berri bati gerora sartzen laguntzeko. Hala, ez litzateke gertatuko farmazia-bulegoko titularrak titulaziorik ez izateagatik nutrizio eta dietetika zerbitzu hori gauzatu ahal ez izatea.

Ez litzateke diskriminaziorik ezarriko analisi klinikoen, ortopediaren eta optikaren atalen inguruan, titulu hori ez baita behe-mailakoa, ez eta graduondoko trebakuntza edo prestakuntza hutsa ere. Gainera, erantzukizun bikoitza egongo litzateke jardunbide txarraren kasuan (farmazia-bulegoaren titularrarena eta nutrizio- eta dietetika-atal berriaren titularrarena).



9/24

ekainaren 28koa, “EAEko abeltzaintzako ustategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-06-10.

Emaitza: EAEko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen du zuen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bidalitako “EAE-ko abeltzaintzako ustategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektua”.

1. artikuluan adierazten denez, arauaren xedea da EAEko abeltzaintza-ustategiek bete beharreko baldintza teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzea, hargatik eragotzi gabe sektoreko gainerako arau bereziak, higieniko-sanitarioak, ingurumenekoak, hirigintzakoak eta aplikagarri diren bestelakoak betetzea.

Europar eta Espainiar estatuan azken urteetan gai honen inguruan onetsi diren araudi-aldaketak direla-eta, beharrezkoa da EAEko abeltzaintza-baldintzen berezitasunetara egokitzea eta estatuko araudian jasota ez dauden zenbait alderdi arautu behar dira. Hori guztia dela-eta, gomendagarria da arau berri bat onestea, orain arte indarrean egon dena —irailaren 22ko 515/2009 Dekretua— aldatu beharrean.

Abeltzaintza-jarduerak ezinbestekoak dira landa-komunitateen ekonomiarako eta komunitate horiek bizirauteko, eta jarduera-sektore garrantzitsua dira. Hala ere, egia da ingurumenean eta jarduera horiek egiten diren lekuetako osasun-egoeran eragin dezaketela. Hori dela-eta, beharrezkoa da gure lurralde-eremuan bi ikuspegi horiek uztartzea, nekazaritza-jarduerak eta horiek garatzen dituzten komunitateak arriskuan daudelako, eta, aldi berean, abeltzaintzak ingurumena eta osasungarritasuna zaintzeko modu errespetagarrian eta bateragarrian egin ahal izatea.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Horrenbestez, EAEko EGABek uste du dekretu-proiektua egokia dela eta positibotzat jotzen du arau berria egitea erabaki izana eta ez aurretik indarrean zegoena aldatzea. Hala eta guztiz ere, kontsulta-organoarentzat deigarria izan da abeltzaintza-ustiapenen araudi honetan akuikultura, barraskilo-hazkuntza eta intsektuen laborantza gehitu izana. Gure ustez, edonola ere, arrain-haztegiek, uretakoak izateagatik dituzten berezitasunak direla-eta arauketa bereizia izan beharko lukete eta ez abeltzaintza-ustiategiena.

10/24 ekainaren 28koa, “Erlezaintza arautzeko dekretu-proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-06-10.

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzen du Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak bidalitako “Erlezaintza arautzeko dekretu-proiektua” izapidetzea.

Araua xedea da erlezaintza arautzea eta gutxieneko baldintza higieniko-sanitarioak ezartzea erlezaintzako ustiategian dauden erauzketa- eta ontziratze-lokalei.

Dekretu-proiektuaren xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoan lehen-mailako ekoizpena egiten duten erlezaintza-ustiategiei eta erlezaintzari lotutako lanak gauzatzen dituzten ustiategiei aplikatuko zaizkie.

Dekretu-proiektu honek otsailaren 22ko 209/2022 Errege Dekretua ezartzen du bere artikuluko batzuk garatuz, edukiaren zati bat autonomia-erkidegoko araudian txertatuz eta, gainera, erleen ustiategietan dauden erauzketa- eta ontziratze-lokalen gutxieneko baldintza higieniko-sanitarioak arautuz. Modu horretan, indargabetu egin zen Erlezaintza Arautzeko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretua eta arau egokiago bat onetsi zen.

EAEko EGABek egokitzen du dekretu-proiektua eta nahitaez bete beharreko estatuko oinarritzko araudia erreproduzitzen eta/edo garatzen duten artikuluko jakin batzuk eta gai horri buruzko erregulazio propioa ezartzen duten artikuluko (estatuko araudiak erregulatzen ez dituenak) arau berri batean biltzea positibotzat jotzen du. Hala eta guztiz ere, ohar batzuk egin zituen.

Hala, kontsulta-organoak uste du dekretu-proiektuan etengabe bestelako araudi-testuak aipatzeak ez duela araua ulertzea errazten.

11/24 azaroaren 5koa, “Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzeko Dekretu Proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Gizarte Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-10-14.

Emaitza: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Euskal Batzordeak egokitzen du Osasun Sailak bidalitako dekretu-proiektua izapidetzea. Bere xedea informazio-bilketari arauketa-babesa ematea da Toxikomanien Estatuko Informazio Sistemaren bitartez, modu horretan, adikzioei eta adikzioek kaltetutakoei buruzko datuak jasotzeko, eta positibotzat jotzen dugu hori. Horri esker, posible izango da Euskadiko Adikzioen Informazio Sistema sortzea eta bere funtzionamendua arautzea Euskadiko Osasun Publikoko azaroaren 30eko 13/2023 Legea garatuz, modu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Publikoko Informazio Sistemaren parte gisa adikzioen datuak lantzeko.

Jasotako informazioa herritarren osasunaren inguruko datu sentikorren ingurukoa izango denez eta datuak jasotzea nahitaezkoa izango denez, beti errespetatu beharko da datu pertsonalak babesteko araudia: zehazki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 EB Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

EAEko EGABek uste du dekretu-proiektua egokia dela, baina testua hobetzeko proposamen gisa ohar batzuk gehitu ditu, araudia argiagoa eta zehatzagoa izan dadin.

Lehenik eta behin, dekretuaren helburua xedapen-multzoan jasota dagoenez, ez da beharrezkoa eranskin batean zehaztea Informazio Sistemari sartu beharreko eremuen xehetasuna. Izan ere, horrek sistemaren edukia mugatu dezake eta etorkizunean egin daitezkeen garapenetan hobetzea eta perfektzionatzea zaildu dezake.

Gainera, Kontsulta Organoak uste du gaur egun ez dagoenez adostasunik askotariko jokaera-adikzioen tipologia inguruan, horren inguruko informazio-bilketa bestelako jokaeretara zabaldu beharko litzatekeela; hau da, jokoarekiko adikzioez haratago, adibidez, sare sozialekiko adikzioa, erosketa konpulsiboena, sexuarekiko adikzioa edo lanarekikoa. Hala, errazagoa litzateke jokaera horiek ikertzea eta hobeto sailkatzea.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Modu berean, Adikzioen eta Drogomenpekotasunen Arreta Integralaren apirilaren 7ko 1/2016 Legean zehazten denez beharrezkoa dela adikzio-ohituretan gizarte-desberdintasunak neurtzea, EAEko EGABek uste du adikzioengatiko tratamendurako onartzeko fitxategien oinarritzko egituraren desberdintasun horiek kategorizatzea ahalbidetzen duten aldagaiak jaso beharko liratekeela, besteak beste, laneko egoerari eta bakoitzaren diru-sarrerari buruzko datuetan oinarrituz. Informazio horrekin, posible izango da osasun- eta gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen jarduketak zuzentzea eta adikzioen inguruko hedapen- eta prestakuntza-jarduerak erraztuko dira.



12/24

ekainaren 28koa, “Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari buruzkoa”

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-10-18.

Emaitza: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak bidalitako dekretu-proiektua aztertu eta gero, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak planteatutako aldaketaren egokitasunaren inguruan dituen zalantzak bidali zituen.

Hala, Batzordeak esan zuen dekretu-proiektuaren arabera, argitu egin behar dela erabilera turistikoko etxebizitzetara eta erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako geiei aplikatu beharreko esparru juridikoa, landa-eremuan egon edo ez. Izan ere, araudian hutsuneak daude gai horren inguruan.

Hala eta guztiz ere, kontsulta-organoaren iritziz, kontsultatutako araudian ez da behar bezain argi azaltzen zergatik uste den arau-hutsune hori dagoela; aitzitik, badirudi hasierako bazterketari buruzko irizpide-aldaketa gertatu dela.

Bestalde, oso argi dago gaur egun etxebizitza turistikoei buruzko legeria eta legeria horretan agertzen diren beste erabilera turistiko batzuk zalantzan daudela.

Horregatik, kontsulta-organoak uste du beharrezkoa dela etxebizitza-politika publikoak eta horien erabilera turistikoari buruzko politikak elkarrekin lotzea. Errealitatea goitik behera aldatu da azken urteetan, eta aurkeztutako araudian ez da inolaz ere turismo-eredua (eta, horren barruan, etxebizitzaren erabilera turistikoak) analizatzen eta politika publikoen arteko ezinbesteko koordinazioaren azterketarik ere ez da egin.

EAEko EGABek uste du arau-testuak kontuan hartu beharko lituzkeela erabilera turistikoko etxebizitzetara eta erabilera turistikoko etxebizitzetako logelen gaineko ikuskapen- eta kontrol-kostuak (batez ere, udalerrri txikietan), ingurumen-inpaktuak eta, azkenik, tentsio-eremuak ere badaudela.

Laburbilduz, EGABek beharrezkotzat jotzen du etxebizitzaren turismo-ereduari eta erabilera turistikoari buruzko hausnarketa eta berrikuspen sakona egitea, eredu horren ondorioak zabal eta zeharka aztertzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren helburu soziala bermatzeko.

2. KAPITULUA Jardueren txostena



13/24

azaroaren 25ekoa, “MERKASARETZA, Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duen dekretu-proiektuari” buruzkoa

Batzordea: Ekonomia Garapenerako Batzordea.

Sarrera-data: 2024-11-05

Emaitza: El EAEko EGABek egokitzen du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak bidalitako dekretu-proiektua izapidetzea. Bere helburua Eusko Jaurlaritzaren Merkataritzako Bulego Teknikoen (MBT) programa berritzea da. Programa hori orain dela 30 urte ingurutik dago martxan eta EAEko merkataritza-sektorearen egungo beharretara egokitu nahi da. Inguruabar berrien artean daude, besteak beste, zerbitzuaren digitalizazioa hazten ari dela, kontsumo-ohitura berriak, herri eta hirietako mugikortasunean eta plangintzan aldaketak gertatu izana, eta merkataritza-sektorean jasangarritasun-irizpideak eta genero-ikuspegia txertatu beharra.

MERKASARETZA Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortuz, lortu nahi dena da merkataritzari doako laguntza tekniko espezializatua ematea eta merkataritza-banaketa sektore osoari eta erakundeei bideratuta egotea. Modu horretan, sektorea arrakastaz egokitu ahal izan dadin etengabe aldatzen ari den ingurura eta lehiakortasuna optimizatu dezan. Horretarako, askotariko zerbitzuak izango ditu, eta horien artean azpimarratu behar dira merkataritza-informazioa eta -laguntza ematea eta merkataritza-jarduera dinamizatzea eta sustatzea.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du dekretu-proposamenak programaren dirulaguntza-araubidea hobetu behar duela eta intereseko aldaketak txertatu behar dituela. Lehenik eta behin, aholkularitza-bulegoa eratzeko kontratatutako pertsona hizpide duen MBT sistema albo batera utzi eta kualifikatutako langileak dituen erakundea hizpide duen MLP sistema ezarriko da. Horrela, zerbitzuaren kalitatea eta espezializazioa indartuko dira. Gainera, programaren betearazpen-epea luzatuko da (urtebetetik lau urtera) eta, horrela, zerbitzua egonkorragoa eta profesionalagoa izango da. Era berean, aldaketa horiekin zerbitzua erabiltzaile eta udalerriri gehiagotara iritsiko da eta, aldi berean, MLPen arteko koordinazioa eta integrazioa sustatuko da. Horrenbestez, saltoki bakoitzak, bere kokapena gorabehera, arreta- eta zerbitzu-maila berbera jasoko du eta kontsultak, aholkularitzak eta kudeaketak azkarrago eta eraginkorrago egingo dira.

EAEko EGABek uste du dekretu-proiektua egokia dela, baina testua hobetzeko proposamen gisa ohar batzuk gehitu ditu.

Hala, eredu-aldaketak plantillako langileen egonkortasuna ziurtatzen duenez (betiere, lanpostuko baldintzak betetzen badituzte) ez dugu egokitzen testuan aipatzea urteko finantzaketa erabiliko dela merkataritza-laguntzaileak kontratatzeke. Izan ere, ulertu daiteke urtero lanpostuaren titularra aldatu ahal izango dela.

Kontsulta-organoak uste du dekretuan argiago azaldu beharko liratekeela zeintzuk diren dirulaguntza-eredua albo batera utzi eta lankidetzak hitzarmenen ereduak aplikatzeko arrazoiak eta abantailak.

Gainera, komeniko litzateke MBT sarearen jarduketan balantze bat egitea eta detektatutako hobekuntza-alderdiak azaltzea. Horrekin lotuta, araua bere inpaktu ekonomikoaren zenbaketa argi batekin osatuko balitz, posible izango litzateke aldaketa-eredua aurrekontuaren ikuspegitik baloratzea.

EAEko EGABek uste du, halaber, arauaren xedea definitzerakoan kontsumitzaileak, ondasunen azken hartzaileak eta saltokiak eskaintzen dituen zerbitzuak aipatu beharko liratekeela eta MLPen zerbitzuen artean aipatu beharko litzatekeela kontsumoko arbitraje-sistemara atxikitzea sustatzea.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Kontsulta jardueraren eraginaren jarraipena

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024an onartutako lege-proiektuak, dekretuak eta planak, Euskadiko EGABk honako urte hauetan irizpena eman dienak:

2022

Jarraipen
Txostena

1/22

urtarrilaren 14koa, "EAEn Aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatu eta gainbegiratzeari Dekretu Proiektuari" buruzkoa

2024ko urtarrilaren 23an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ekonomia eta Ogasun Sailak proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko aseguru- eta berraseguru-banatzailleen administrazio-erregistroa sortu eta arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera gainbegiratzeko dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2022ko urtarrilaren 14ko osoko bilkuran. Araua 2024ko otsailaren 5eko EHAAr argitaratu zen, 26. zenbakian.

Dekretuaren xedea da aseguru- eta berraseguru-banatzailleen jardueraren erregistroa sortzea eta haren kontrola eta zehapen-prozedura arautzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari baitagokio horiek gainbegiratzeko eta antolatzeko eskumena.

Laburbilduz, onetsitako testuak zenbait aldaketa izan zituen artikuluetan jasotako ohar eta alegazioen ondorioz. EGABek araua egokitzen eta bidezkoztatzen jo zuen bere irizpenean, eta hainbat ohar zehatz egin zituen.

EGABek hamabi proposamen zehatz egin zituen, eta horietatik sei hartu dira kontuan. Eta zazpigarrena alboratu egingo litzateke, aurreko puntu batean onartua izan ondoren.

Jarraipen
Txostena

7/22

Ekainaren 9koa, "Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu-proiektuari" buruzkoa

2024ko apirilaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Osasun Sailak eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak proposatuta, Hurbileko salmentaren bidez merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioei eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzei buruzko dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2022ko ekainaren 9ko osoko bilkuran. Araua 2024ko maiatzaren 13ko EHAAr argitaratu zen, 92. zenbakian.

Dekretu honen xede dira hauek:

a) Hurbileko salmentaren bidez EAEn merkaturatutako elikagaien baldintza higieniko-sanitarioak eta trazabilitate-, etiketatze- eta publizitate-baldintzak ezartzea.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 852/2004 (EE) eta 853/2004 (EE) erregelamenduen aplikazio-eremutik kanpo geratu diren zenbait jardueraren baldintzak eta betekizunak arautzea, hurbileko salmenta bidez EAEn azken kontsumitzaileari egindako produktu primarioen horniketa txikiei dagokienez.

c) Hurbileko salmentaren bidez EAEn merkaturatutako elikagaien ekoizle eta merkaturatzaileek oro har bete behar dituzten baldintzak ezartzea.

Laburbilduz, onetsitako testuak hainbat aldaketa izan zituen artikuluetan jasotako ohar eta alegazioen ondorioz. Irizpenean, EGABek uste zuen, dekretuak alderdi higienikoen eta sanitarioen arloan araudia argitu eta osatzen duen arren, eta horri esker hurbileko salmentan aldeko ekosistema eratzen duen arren, beste tresna batzuk izan behar dituela lagungarri, ekosistema lagunkoi hori konfiguratzeko laguntzeko hurbileko salmentaren garapen eraginkorrera iritsi nahi bada.

Era berean, EGABek proposamen zehatz bat egin zuen, baina ez zen kontuan hartu.

2023

Jarraipen
Txostena

11/23

uztailaren 26koa, "Euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko Dekretu-proiektuari" buruzkoa

2024ko otsailaren 22an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak proposatuta, "Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Dekretua" onartu zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen Kontseiluak 2023ko uztailaren 26ko osoko bilkuran.

2024ko martxoaren 18ko EHAA (150. zenbakia) argitaratu den arauaren xedea da, bertan adierazten denez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen argitan, hizkuntza-normalizazioaren irizpideak garai berrietara egokitzea eta euskal sektore publiko osoaren koordinazioa bermatzea. Eta, horretarako, hiru helburu ditu (1.2 art.):

"a) Euskararen eta gaztelaniaren erabilera ofiziala bermatzea, herritarrekiko inolako diskriminazio instituzionalik gabe, euskal sektore publikoko entitateekiko harremanetan.

b) Euskara zerbitzuetan eta lanean ohikoan eta orokorrean erabiltzen den hizkuntza gisa kokatzea euskal sektore publikoko entitateen jardunean, entitate horiek ezarritako erabilera-irizpideen arabera, gaztelaniaren erabilera inolaz ere mugatu gabe.

c) Benetako berdintasuna lortzea, euskal sektore publikoko entitateen jardun-eremuan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeari dagokionez; horretarako, beharrezkoak diren ekintzak bultzatuko dira eta ager daitezkeen oztopoak saihestuko dira".

Onartutako testuaren egitura ia ez da aldatu Batzorde honi proposatu zitzaion horretatik, nahiz eta alderdi esanguratsuetan ñabardura asko aldatu diren. Bere irizpenean, Batzorde honi ez zitzaion egokia iruditu arau honen izapidea. Ondorioz, hainbat ohar orokor eta zehatz egin zituen. Nahiz eta ez den erraza Irizpenaren hitzetan egin diren aldaketa garbiak antzematea, txertatutako aldaketa asko planteatutako oharren eskutik doaz.

Baloratutako 49 proposamen zehatzetatik 32 ez dira jaso eta gainerako 17ak hitzez hitz jaso dira, edo, gutxienez, Irizpenean iradokitako eran aldatu dira testuak.

Jarraipen
Txostena

12/23

Urriaren 6koa, "borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen arloko hainbat dekretu eta agindu aldatzen dituen dekretu-proiektuari" buruzkoa

2024ko otsailaren 13an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ekonomia eta Ogasun Sailak proposatuta, Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei buruzko hainbat dekretu aldatzeko dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko txostena egin zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2023ko urriaren 6ko osoko bilkuran. Araua 2024ko otsailaren 29ko EHAA argitaratu zen, 44. zenbakian.

Arauaren xedea honako dekretu hauek aldatzea da:

- Otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua, Gizarte-emendiotarako Borondatezko Erakundearen Legearen Araupidetza ontzat emanez.
- 92/2007 Dekretua, maiatzaren 29koa, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundearen Jarduera jakin batzuk Arautzeko dena.
- 203/2015 Dekretua, urriaren 27koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Laburbilduz, onetsitako testuak aldatetako izan ditu bere egituraren eta artikuluetan, jasotako ohar eta alegazioen ondorioz.

Euskadiko EGABek bere irizpenean ohar batzuk egin zituen eta garrantzitsuak diren eta konponduta ez dauden zalantza batzuk adierazi zituen.

Lehenik eta behin, esan zuen nahiz eta aldatetako egiteko erabilitako teknika juridikoa zuzena izan, dekretu-proiektuaren edukia luzea, teknikoa eta konplexua dela, eta zenbait alderdi ez direla oso argiak. Bigarrenik, aurretik esandakoa eta gaiari lotuta argitaratu diren arau guztiak kontuan hartuta, beharrezkotzat jo zuen testu batekin bat idaztea (eta hori ez zen kontuan hartu). Hirugarrenik, esan zuen aukera aprobetxatu daitekeela arauketa espezifikoa eguneratu edo argitu beharko liratekeen kontzeptuak aldatzeko.

Era berean, EGABek zortzi proposamen zehatz egin zituen, eta bakarra hartu da kontuan.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Jarraipen
Txostena

13/23

urriaren 19koa, sobre el “EAEko Turismo-gidarien jardueraren Dekretu-proiektuari” buruzkoa

2024ko martxoaren 5ean, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak proposatuta, Turismo-gidarien Euskadiko Jardueraren Dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen batzordeak 2023ko urriaren 19ko osoko bilkuran. Arau hori 2024ko martxoaren 20ko EHAA argitaratu zen, 58. zenbakian.

Dekretuaren xedea turismo-gidarien jarduera arautzea da, Turismoaren uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 64.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Onartutako testua ia ez da aldatu Batzorde honi proposatutakoarekin alderatuta. Irizpenean, batzordeak arauaren balorazio positiboa egin zuen, eta gogoeta orokor labur batzuk egin zituen, aldatzeko proposamen zehatzik gabe; hortaz, irizpenaren eraginaren jarraipenik ez da egin behar.

Jarraipen
Txostena

15/23

abenduaren 15ekoa, “EAEn angularen arrantza profesionala arautzen duen eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duen Dekretu-proiektuari” buruzkoa

2024ko ekainaren 18an Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren proposamenez, EAEn angularen arrantza profesionala arautzen duen eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa sortzen duen dekretua onetsi zuen. Aurretik, Kontseiluak 2023ko azaroaren 27ko osoko bilkuran eman zuen dekretuaren proiektuari buruzko irizpena.

Arau hori 2024ko ekainaren 28ko EHAA argitaratu zen, 127. zenbakian.

Dekretuaren xedea da angularen arrantza profesionala (lurretik eta ontzietatik) arautzea eta angula-arrantzale profesionalen erregistroa (REPROAN) sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren eskumenen esparruan. Arau horren helburua da angularen arrantza profesionala eta arduratsua bermatzea, merkaturatzearen azken faseraino legezko mugak betez.

Onartutako testua ia ez da aldatu Batzorde honi proposatutakoarekin alderatuta. Proiektuari buruzko irizpenean Kontseiluak ontzat jo zuen araua eta gogoeta zehatz batzuk egin zituen artikulua hobetzeko (zehazki, hiru proposamen zehatz). Ez dira kontuan hartu.

Jarraipen
Txostena

16/23

abenduaren 4koa, “Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa (NPEPE) Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzen duen dekretu-proiektuari” buruzkoa

2024ko maiatzaren 28an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta, Gobernu Kontseiluak honako hau onartu zuen: Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko Dekretua. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2023ko abenduaren 4ko osoko bilkuran. Araua 2024ko ekainaren 11ko EHAA argitaratu zen, 113. zenbakian.

Hau da arauaren xedea:

1.– Alde batetik, arauak ezartzea, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa (aurrerantzean, NPEPE) Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko. Plana Europako Batzordeak onartu zuen, 2022ko abuztuaren 31ko C (2022) 6017 Erabakiaren bidez. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratu zen, bai eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren egoitza elektronikoan ere.

2.– Bestalde, landa-eremuak kategorizatzea, Landa-Ingurunearen Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– NPEPEa Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeak, Dekretuan xedatutakoaz gain, Dekretuaren I. eranskinean jasotzen den batasuneko eta oinarritzeko estatuko araudia edo araudi hori ordeztzen edo osatzen duena bete beharko du.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Laburbilduz, esan daiteke onetsitako testuak zenbait aldaketa izan zituela artikuluetan eta egituran, jasotako ohar eta alegazioen ondorioz.

Irizpenean, EGABek uste zuen, Espainiako 2023-2027 aldiko NPERen Plan Estrategikoa aztertuta, garaiz egonez gero, beste nekazaritza eta ingurumenaren aldeko neurri bat sartuko zela PV6501.2 -Nekazaritzako elikagaien konpromisoak nekazaritzako azaleretan izeneko esku-hartze fitxan. Laborantza jasangarriko konpromisoak (3.174 orrialdea), "Ekonomia zirkularra, ustiategi txiki jasangarriak" izenburupean. Horrez gain, zenbait ohar zehatz proposatu ziren.

Guztira, bost proposamen zehatz egin ziren, eta horietako bi hartu ziren kontuan.

Jarraipen
Txostena

17/23

abenduaren 15ekoa, Elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea zati batean garatzen duen Dekretu-proiektuari" buruzkoa

2024ko maiatzaren 7an, Eusko Jaurilaritzaren Kontseiluak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta, Elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen batzordeak 2023ko abenduaren 15eko osoko bilkuran.

Arau hori 2024ko maiatzaren 21eko EHAAan argitaratu zen, 98. zenbakian.

Dekretuaren xedea da Elikakatearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 12/2013 Legea garatzea, Euskadiko Elikagaien Kontratazioko Merkataritza Jardunbide Egokien Kodeari, Euskadiko Elikakatearen Behatokiari, zehatzeko ahalari, Euskadiko Agintaritza Betearazlearen izendapenari eta funtzioei eta kontrol-araubideari dagokienez.

Onetsitako arauaren xedapen batzuk berriro antolatu eta/edo garatu diren arren, edukia, funtsean, ez da aldatu Batzordeari proposatu zitzaionetik.

Irizpenean, EGABek positiboki baloratu zuen arauaren xedea, hau da, elikakatearen funtzionamendua hobetzen laguntzea. Hala ere, dekretuaren edukia buruzko hainbat gai azpimarratu zituen, gogoeta orokor eta zehatz gisa. Gai horiek, gehienbat, ez dira kontuan hartu (hamahirutik hiru).

2024

Jarraipen
Txostena

2/24

urtarrilaren 29koa, sobre el "Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektuari" buruzkoa

2024ko maiatzaren 21ean, Eusko Jaurilaritzaren Kontseiluak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak proposatuta, nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen batzordeak 2024ko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran.

Arau hori 2024ko ekainaren 4ko EHAAan argitaratu zen, 108. zenbakian.

Dekretuaren xedea da nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea, EAEko administrazio publikoen tresna izan dadin, nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorea planifikatzeko, antolatze eta garatzeko behar den informazio guztia modu iraunkor, integratu eta eguneratua izateko.

Xedapen batzuk berrantolatu eta/edo garatu badira ere, onetsitako testuaren edukia ez da funtsean aldatu Batzordeari proposatutakoarekin alderatuta.

Irizpenean, EGABek positiboki baloratzen zuen arauaren xedea, hau da, nekazaritza- eta elikagaigintza-industriaren behar berrietara egokitzea, bai eta arau-aldaketetara egokitzea ere, eraginpeko sektoreen lege-segurtasunari laguntzeko. Hala ere, dekretuaren edukia buruzko hainbat gai azpimarratu zituen, gogoeta orokor eta zehatz gisa.

Baloratu beharreko gogoetetatik (artikulu batzuk aldatu eta/edo berrantolatu direnez) gehienak ez dira kontuan hartu (hamabitik lau).

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Jarraipen
Txostena

3/24

otsailaren 2koa, sobre la “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategiaren proposamenari” buruzkoa

2024ko otsailaren 13an, Gobernu Kontseiluak EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Institutuak- hala proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 2030 Estrategia onetsi zen; proposamen hori Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak informatu zuen 2024ko otsailaren 2ko osoko bilkuran.

Agiri hori euskal agintari publikoek jarraitu beharreko ibilbide-orria da, modu horretan, gure gizartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea eraginkorki aplikatu ahal izateko.

Estrategia erreferentziazko esparru estrategikoa da eta erakunde bakoitzak autonomiarekin eta malgutasunarekin aplikatu behar du, bere eskumenen eta lehentasunen arabera.

2030erako Estrategia hori onetsita, Eusko Jaurlaritzak, lehen aldiz, legegintzaldi bakoitzean berdintasun-plan bat egiteari utzi dio (1991tik aurrera berdintasunerako zazpi plan sortu dituzte elkarren segidan) eta proiektio estrategikoagoa egin du, denbora luzeago batekin koherentzian. Hala, estrategia 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrotatzen da eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legeari eraginkortasuna ematen dio.

Onartutako testuak aldaketa batzuk izan ditu.

EGABen irizpidean hainbat berariazko gogoeta jaso ziren eta batik ere ez zen kontuan hartu.

Jarraipen
Txostena

4/24

Martxoaren 5koa, Portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretu-proiektuari” buruzkoa

2024ko irailaren 24an, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak proposatuta, Portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretua onetsi zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena aurretik eman zuen batzordeak, 2024ko urtarrilaren 22ko osoko bilkuran.

Arau hori 2024ko irailaren 24ko EHAAn argitaratu zen, 186. zenbakian.

Dekretuaren xedea da portuetako udal-kontseiluak sortzea, portuetan eta itsas gaietan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailari atxikita eta portuen arloko aholkularitza, kontsulta eta eztabaidarako kide anitzeko organo gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabiltzen dituen eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 4.1 artikuluari jarraiki.

Xedapen batzuk berrantolatu eta/edo garatu badira ere, onetsitako testuaren edukia ez da funtsean aldatu Batzordeari proposatutakoarekin alderatuta.

Bere irizpenean, EGABek positiboki baloratzen zuen arauaren xedea, eta Dekretuaren edukiari buruzko hiru gai aipatzen zituen ohar zehatz gisa. Ohar horietatik lehena kontuan hartu da; bigarrenean EGABek baloratutako testua ezabatu da; eta hirugarren oharra ez da kontuan hartu.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Jarraipen
Txostena

5/24

Martxoaren 5ekoa, "Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duen dekretu-proiektuari" buruzko

2024ko apirilaren 16an, Gobernu Kontseiluak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailaren proposamenez, Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzat dirulaguntza arautzen duen Dekretua onartu zuen. Dekretu horren proiektuari buruzko irizpena eman zuen EGABek 2024ko martxoaren 5eko osoko bilkuran. Araua 2024ko maiatzaren 21eko EHAAan argitaratu zen, 98. zenbakian.

Dekretu honen xede dira hauek:

1. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzat dirulaguntza arautzea, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 61.4 b) artikuluan aurreikusia, eta laguntza emateko baldintzak eta aplikatu beharreko prozedura zehaztea.
2. Dirulaguntzaren helburua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzei laguntzea, beren bizitza garatu dezaten, eta, ahal den neurrian, haien amen heriotzak eragin dien kaltea erreparatzen laguntzea.

Onetsitako testuak hainbat aldaketa izan ditu jasotako alegazioen ondorioz. Bereziki, artikulua berri bat sartu da, laguntzak eskuratzeko betekizunak egiaztatzeko agiriei buruz mintzo dena (7. artikulua). Bere irizpenean, EGABek positiboki balioztatu zuen araua, gogoeta berezi batzuekin.

Zehazki, EGABek lau proposamen zehatz planteatu zituen, eta horietako bat ere ez zen kontuan hartu.

Jarraipen
Txostena

6/24

apirilak 15ekoa, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen Agindu- proiektuari" buruzkoa

2024ko azaroaren 26an, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak proposatuta, Eusko Jaurlaritzaren kontseiluak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun sailburuaren agindua onetsi zuen. Horren proiektua aurretiaz eman zuen Batzorde honek 2024ko apirilaren 9ko osoko bilkuran.

Arau hori 2024ko abenduaren 26ko EHAAan argitaratu zen, 250. zenbakian.

Agindu horren xedea da Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85.2 artikulua arautzen duen Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzea eta onartzea; zerrenda horretan agindu horren eranskinean ageri diren teknologiak daude.

Onartutako testuaren edukia ia ez da aldatu Batzorde honi proposatu zitzaionarekin alderatuta. Bere irizpenean, EGABek positiboki baloratzen zuen arauaren xedea, eta oso egokia zela esan zuen. Bakarrik Dekretuaren edukiari buruzko bi gai aipatu zituen berariazko ohar gisa. Gogoeta horiek ez dira kontuan hartu.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

EAEko egoera Ekonomiko eta Sozialari buruzko 2023ko Memoria



2024ko ekainaren 28an egindako bilkuran 2023ko EAEko egoera ekonomiko eta sozialari buruzko memoria aho batez onartu zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko bilkurak, Kontseiluaren Erregelamenduak ezarritako epeen barruan.

Hainbat ataletan banatuta, "2023ko Memoria Sozioekonomikoak", besteak beste, egoera ekonomikoa, enplegua eta lan-harremanak, bizi-kalitatea, hezkuntza edo gizarte-babesa aztertu eta horien inguruan hausnartzen du. Iturri ofizialetatik datozen EAEko egoera sozial eta ekonomikoari buruzko txosten eta datu estatistikoen bilduma da eta EGABek aztertu, kontrastatu eta baloratu egiten du, dokumentuan jasotzen dituen zenbait gogoeta adostu arte.



DEMOGRAFIA

Demografiari dagokionez, euskal kontsulta-organoak azpimarratu du EAEn tentsio demografikoa dagoela, jaiotza-tasa txikiak eta biztanleriaren zahartze

progresiboak sortuta. 2023an migrazio-saldo positiboek hazkunde natural negatiboa konpentsatu zuten arren, EGABek uste du beharrezkoa dela Demografia-erronkarako 2030 Estrategia aplikatzea eta politika publikoak zeharka eta modu koordinatuan gauzatu behar direla. Ez dugu ahaztu behar migrazioa egitura-prozesu beharrezkoa dela gizartearen aberastasuna eta ongizatea bermatzeko.



EKONOMIA

Ekonomiari dagokionez, Batzordeak egiaztatu zuenez, inflazioak eta nazioarteko gatazka geopolitikoek sortutako ziurgabetasun handia gorabehera, EAEko BPGd

% 1,8 hazi zela. Gainera, ekonomia-adierazle nagusiak gehiago hazi dira Eurogunekoekin alderatuta. Batzordeak esan du garrantzitsua dela EAEko ekoizpen-sarearen lehiatzeko indarra mantentzea eta sendotzea.

2023an inflazioa apaldu den arren (2023an +% 3,1 eta 2022an +% 5,4), prezioen indizeak 2021 aurreko balioetatik gora daude, eta hala, inflazio-egoera kontuan hartu beharreko arazoa da, herritarren artean duen eraginarengatik.



EMPLEGUA ETA LAN-HARREMANAK

Enpleguari eta lan-harremanei dagokienez, 2022an hasitako berreskuratze-bidean jarraitu da eta 2023ko bilakaera positiboa izan da orokorrean. Hala, sortutako enplegu gehiena zerbitzuen sektorekoa izan da, eta enplegu gutxiago sortu da industrian. Iraupen luzeko langabezia eta gazteen langabezia gutxitu egin dira, baina migratzaileen langabezia gehitu egin da. Hala ere, okupazioa hazi eta langabezia gutxitu den arren, arazo batzuk mantendu egin dira, hala nola sektore publikoko behin-behinekotasun handia eta EAEko jardura-tasa txikia, bereziki, emakumeen artean.

Horregatik, EAEko EGABek dio enplegu politika aktiboek zailtasun handienak dituzten kolektiboak laneratzeko eta lanean mantentzeko eta genero-arrakala gutxitzeko esfortzuak egiten jarraitu behar dutela. Horrekin lotuta, enplegurako eta babes sozialerako partida publikoak garrantzitsuak dira.

2. KAPITULUA Jardueren txostena



OSASUN SISTEMA

Osasun-sistemari dagokionez, Batzordeak aipatu du biztanleriaren zahartze progresiboak argi uzten duela ez dela albo batera utzi behar osasunean egiten den gastu publikoa ezta baliabideen optimizazioa. Izan ere, prebentzio-estrategiak indartzea geroz eta garrantzitsuagoa da.

Halaber, azken urteetan itxarotzezerrandan dauden pazienteak gehitu egin dira eta lehen-mailako arretako medikuak gutxitu dira eta, EGABen arabera, egoera hori ikusirik, neurri ekonomikoak hartu behar dira, sistema antolatu behar da eta plantillak indartu behar dira.

Batzordeak ohartarazi du, gainera, nahasmendu mentalak eta portaera-nahasmenduak gehitu egin direla eta 2023an 2019ko kopuruak gainditu dituztela. Arazo horiek modu eraginkorrean lantzeko, adierazleen prebentzio-jarraipena egin behar da, bereziki, suizidioek eta autolesioek eragindako heriotza goiztiarrarena, eta giza baliabide eta baliabide tekniko nahikoak eduki behar dira.



ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren arloan, kontsulta-organoa pozik dago Euskadi eskualde-bikaintasuneko polotzat jo zutelako Eskualdeetako berrikuntza-adierazleen Europako Taldean (RIS 2023), baina beharrezkotzat jotzen du ETE berritzaileen ehunekoak gehitzea eta berrikuntza-jardueretan gehiago inbertitzea, hala nola diseinuan, marketinean, jabetza intelektualaren kudeaketan, industrian edo prestakuntzan. Hobetzeko beste eremu bat berrikuntzak enpleguan eta salmentetan duen eragin ekonomikoa da, Europako batez bestekoa baino txikiagoa baita.

Bukatzeko, oso presente izan behar dugu adimen artifiziala. Ziurrenik eragin sakonak sortuko ditu enpresetan, langileengan eta herritarrengan orokorrean. Adimen artifizialaren aukerak aprobetxatzeko, aldaketak planteatu beharko dira prestakuntzan eta adimen artifiziala lan-inguruetan integratzen denean.



INGURU NATURAL ETA ENERGIA

Inguru naturalaren eta energiaren egoerari dagokionez, EGABek positibotzat jotzen ditu garapen ekonomiko jasangarria sustatzen duten ekintzak eta politika publikoak, giltzarriak baitira egungo trantsizio ekologiko-energetikoa lantzeko. Horrekin lotuta, beharrezkoa da erregai fosilak gutxitzen dituen energia-eredurantz aurrera egitea. Horrenbestez, EAEko energia berriztagarrien ekoizpena gehitu behar da, ingurumen-inpaktu positiboa dutelako eta lurraldearen energia-menpekotasun handia arintzeko gaitasuna dutelako.



BIZI BALDINTZAK

Bizi-baldintzei dagokionez, EAE postu altuetan dago bizi-kalitatearen nazioarteko sailkapenetan, baina adierazle batzuek albo batera utzi ezin diren arazoak adierazten dituzte; adibidez, familien % 12,6 energia-pobrezian daude, % 7,6k atzerapenak dituzte etxebizitza nagusiaren ordainketan edo % 21,4k diote ezin dietela aurreikusitako gastuei aurre egin. Horrekin lotuta, Batzordea pozik dago 2023an familiei zuzendutako laguntzetarako esfortzu publikoak nabarmenki gehitu zirelako.

Kontziliazio-adierazleek hobera egin duten arren, zaintza-lanetan genero-ezberdintasunak daude oraindik ere. Era berean, bizitegi-bazterketan dauden kopuruak gora egin du (asko ez diren arren); horregatik, komeni litzateke gizarte-babeseko sistemak horiek estaltzea



GIZARTE BABESA

Gizarte-babesari dagokionez, kontsulta-organoak dio gizarte-babeseko euskal sistemak bere estaldura mantendu duela Europako herrialde nagusiekin konparatzekoak diren mailetan, eta erabilitako baliabideak gehitzen doaz. Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategiko (2023-2026) berriak sistema herritarren zahartzearen inpaktuari egokitzeko erronka landu behar du eta, aldi berean, kolektibo zaurgarriei laguntzen jarraitu behar du.

2023an bukatu egin da aurreko urteetako diru-sarrerak bermatzeko errentaren joera eta hartzaile-kopurua gehitu egin da, zahazki, 2022rekin alderatuta, % 13,6 gehiago izan dira. Soldata-errenten hartzaileen, atzeritarren eta erretiratuaren ehunekoak gehitu dira. Batzordeak azpimarratu zuen orain dela gutxi DSBE egindako araudi-aldaketekin, beharrak hobeto kudeatuko direla eta estaldura zabalduko dela. Batzordeak azpimarratu zuenez, estatuan diru-sarrerak bermatzeko prestazioetarako erabiltzen diren funts guztietatik % 22 EAERI dagozkio, 2022an argitaratutako azken datuen arabera.



ETXEBIZITZA

Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitza-merkatua erronka handia da oraindik ere gizartearen.

2023an gelditu egin zen nolabait higiezinaren merkatua, baina prezioek garestitzen jarraitzen dute eta alokairu-etxebizitzaren eskaintza ez da nahikoa oraindik ere. Hala, EGABek positibotzat jotzen du 2021-2024 Plan Zuzentzailea. Bere bilakaera positiboa izan da eta Euskadiko Etxebizitzarako Gizarte Hitzarmena ere positiboa da. Izan ere, egoera hobetzeko egitura-tresna bat da. Aurrekoarekin lotuta, Batzordea ados dago alokairu arazoizkoak eta birgaitzeak sustatzeko egindako apustuarekin eta etxebizitzak eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzako babestutako etxebizitza-eskaintza handitzearekin. Modu horretan, gazteak emantzipatzen lagundu daiteke.

2. KAPITULUA Jardueren txostena



HEZKUNTZA

Hezkuntzaren arloan, EAEn egoera hobea da estatukoarekin eta Europako batez bestekoarekin alderatuta, gazteek prestakuntza altua baitute, baina Batzordea kezkatuta dago PISA txostenaren emaitzekin, bereziki, irakurketarekiko eta zientziekiko interes gutxi dagoelako beste lurralde batzuekin alderatuta. Lantzen jarraitu beharreko arloak daude, adibidez, ikasketak aukeratzeko gertatzen diren genero-ezberdintasunak. Hala, oraindik ere emakume gutxiago matrikulatzen dira lanbide-prestakuntzako STEM (Science, Technology, Engineering and Mathematics) ikasketetan; izan ere, kasurik onenean, emakumeak bakarrik % 14,8 dira, eta emakume askoz ere gutxiago daude unibertsitateko ikasketa teknikoetan gizekin alderatuta.



SEKTOR PUBLIKOA

EAEko sektore publikoari dagokionez, EGABek nabarmentzen du diru-sarrerak eta gastuak gehitu egin direla. Lehenengoak, nagusiki, inflazioak lagundutako diru-bilketaren bilakaera positiboa dela-eta. Azpimarratzekoa da, gainera, 2023an inbertsio errealak asko handitu direla eta ezinbestekoak dira ekonomia-garapenerako. Aurrekoarekin lotuta, Batzordeak dio beharrezkoa dela aurrekontu-esfortzua mantentzea, modu horretan, inbertsio-maila onargarriak bermatu daitezen eta, gainera, Europako "Next Generation" funtsak aprobetxatu behar dira zerbitzu publikoak eta inbertsio publikoak eta pribatuak indartzeko.

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Organo kolegiatuen bilerak

OSOKO BILKURA


Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak **hamahiru** bilkura egin zituen, horietatik bederatzi ez ohikoak. Horietan, hamahiru irizpen, 2023ko Jardueren Memoria, 2023ko EAEko Memoria Sozioekonomikoa eta 2025ari dagozkion aurrekontuak onartu ziren.

Batzorde Iraunkorra

2024. urtean Batzorde Iraunkorra **zortzi** aldiz bildu zen. Besteak beste, gai hauek landu zituen: 2023ko Jardueren Memoria, 2023ko Memoria Sozioekonomikoa, 2023ko urteko kontuak eta 2025eko aurrekontuak, 2023ko auditoretza-txostenaz eta aurrekontuaren hiruhileko exekuzioei buruzko aurrekontu-kontrolaz gain.

ORGANO KOLEGIATUEN BATZORDEAK

GUZTIRA



2. KAPITULUA Jardueren txostena

Sozial Garapenerako Batzordea

Sozial Garapenerako Batzordea lau aldiz bildu zen 2024an.

Horietan, irizpenen aurreproiektu hauek onetsi ziren, Osoko Bilkurari helarazteko, eta Gobernu Kontseiluak onartutako irizpene n jarraipenen berri eman zen.

BATZORDE EGUNA	ONETSITAKO ETA OSOKO BILKURARA ERAMANDAKO IRIZPEN-AURREPROIEKTUAK, BERTAN ONETSI DAITEZEN	OSOKO BILKURAN ONETSITAKO EGUNA	OSOKO BILKURAN ONESTEKO MODUA
Urtarrilak 30	EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 2030 Estrategia.	Otsailak 2	Aho batez
Otsailak 29	Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzat dirulaguntza arautzen duen dekretu-proiektua	Martxoak 5	Aho batez
Apirilak 23	Etxeko animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen dekretu-proiektua	Apirilak 30	Aho batez
Urriak 25	Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioei buruzko Informazio Sistema sortzeko Dekretu Proiektua	Azaroak 5	Gehiengoz

Ekonomi Garapenerako Batzordea

Ekonomi Garapenerako Batzordea **zazpi aldiz** bildu zen 2024an.

Horietan, irizpenen aurreproiektu hauek onetsi ziren, Osoko Bilkurari helarazteko, eta Gobernu Kontseiluak onartutako irizpenen jarraipenen berri eman zen.

BATZORDE EGUNA	ONETSITAKO ETA OSOKO BILKURARA ERAMANDAKO IRIZPEN-AURREPROIEKTUAK, BERTAN ONETSI DAITEZEN	OSOKO BILKURAN ONETSITAKO EGUNA	OSOKO BILKURAN ONESTEKO MODUA
Urtarrilak 19	Euskal ondare-zuzenbidearen eta familia-ondarea eta -enpresa babestearen arloko berezitasunei buruzko lege-aurreproiektua	Urtarrilak 29	Aho batez
	Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretu-proiektua	Urtarrilak 29	Aho batez
Osailak 16	Portuetako udal-kontseiluak sortzeko dekretu-proiektua	Otsailak 22	Gehiengoz
Apirilak 9	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuaren aginduen proiektua, Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzeko eta onartzeko	Apirilak 15	Aho batez
Ekainak 24	Farmazia-bulegoetako giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzen duen dekretu-proiektua	Ekainak 28	Gehiengoz
	EAEko abeltzaintzako ustategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen eta irailaren 22ko 515/2099 Dekretua indargabetzen duen dekretu-proiektua	Ekainak 28	Aho batez
Irailak 11	Erlezaintza arautzeko dekretu-proiektua	Irailak 16	Aho batez
Azaroak 5	Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua	Azaroak 11	Aho batez
Azaroak 19	MERKASARETZA merkataritza-laguntzako puntuen euskal sarea sortzen duen eta merkataritza-laguntzako zerbitzu-zorroa zehazten duen dekretu-proiektua	Azaroak 25	Gehiengoz

2. KAPITULUA Jardueren txostena

Memoria Sozioekonomikoaren batzordea

Euskadiko EGABeko Memoria Sozioekonomikoaren batzordeak **9 bilera** egin zituen. Horietan, honako puntu hauek landu ziren:

BATZORDEAREN BILERA	2023KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN ZIRRIBORROAK ETA BESTELAKO GAIAK	KAPITULUAK
Otsailak 9	Memoria Sozioekonomikoa zabaltzeko ekitaldia prestatzea	
Martxoak 15	Zirriborroen lehen bidalketa . UPV-EHUko udako ikastaroen esparruan, irailaren 5eko topaketa planifikatzea	I. DEMOGRAFIA EAE-N - II.6.- ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA - IV.1 BIZI-BALDINTZAK
Martxoak 21	Zirriborroen bigarren bidalketa Irailaren 5eko topaketaren alderdiak	- V.2. NATURA-INGURUNEA ETA ENERGIA - V.3. OSASUNA ETA OSASUN-SISTEMA
Apirilak 8	Memoria Sozioekonomikoa zabaltzeko ekitaldia prestatzea	
Maiatzak 10	Zirriborroen hirugarren bidalketa	- II.2 EGOERA EKONOMIKOA - II.5.- EKOIZPEN-AZPIEGITURAK - IV.2. GIZARTE-BABESA
Maiatzak 31	Zirriborroen laugarren bidalketa	- III.- ENPLEGUA ETA LAN ARRISKUAK EAE-N - V.1. HEZKUNTZA ETA KULTURA - VI.- ARAUGINTZA
Ekainak 9	Zirriborroen bosgarren bidalketaren eztabaida Hurrengo jarduketak zehaztea	- II.1.- KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA - II.3 EKOIZPEN-SEKTOREAK - II.4.- SEKTORE PUBLIKOA - II.8.-EUROPAKO NEXT GENERATION FUNTSAK - II.8.-EKONOMIA: LABURPENA ETA GOGOETAK 4. IK. ETXEBIZITZA
Ekainak 28	2023KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN PROIEKTUA, OSOKO BILKURAN AHO BATEZ ONARTUA. UPV/EHUko UDAKO IKASTAROETAN AURKEZTEKO PROPOSAMENA	
Azaroak 29	2024ko Memoria Sozioekonomikoaren lanak abian jartzea	2024KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN INDIZEAREN PROIEKTUA ONARTZEA - BATZORDEAREN 2025ERAKO LAN-EGUTEGIA



3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

Jarduera Instituzionala

2024an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak hainbat ekitaldi eta topaketa instituzionaletan parte hartu zuen. Esanguratsuenak nabarmenduko ditugu:

URTARRILA

- 9 **"Teknologia esponentzialen aukera" txostenaren aurkezpena, ZEDARRIAK**
Presidentea ZEDARRIAKek egindako "Teknologia esponentzialen aukera" txostenaren aurkezpenean egon zen, Bilboko Euskalduna jauregian. Aurkezpen horretan, Antón Costas Comesaña Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidentek parte hartu zuen hizlari gonbidatu gisa, eta hitzaldi hau eman zuen: "Etsipenaren aurka: aurrerabide partekaturako kontratu soziala". kontratu soziala".
- 31 **Europa Foruma Euskadi Tribuna, Iñaki Arriola López, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua**
Presidentea Europa Foruma-Euskadi Tribuna ekitaldian egon zen Bilbon, eta Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Garraioetako sailburuak hartu zuen parte.

OTSAILA

- 23 **Europa Foruma-Euskadi Tribuna, Idoia Mendi, bigarren lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enpleguko sailburua**
Presidentea Europa Foruma-Euskadi Tribuna ekitaldian egon zen Bilbon, eta bigarren lehendakariorde eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enpleguko sailburu Idoia Mendiak hartu zuen parte.
- 28 **EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiaren aurkezpena. Emakunde. Gasteizko Goiuri jauregia**
EMAKUNDEk gonbidatuta, presidentea EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO 2030 ESTRATEGIAREN aurkezpenean egon zen Gasteizen. Iñigo Urkullu lehendakaria izan zen ekitaldiaren buru, eta Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eta EMAKUNDEko zuzendari Miren Elgarrestak hartu zuten parte.



MARTXOA

- 8 **Emakumearen Nazioarteko Eguna: "Elkarrekin ahaldunduz, historia sortuz: kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago"**
Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak (KOOPERATIBEN KONTSEILUA) eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak (KONFEKOOP) Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldia, Gasteizen, "Elkarrekin ahaldunduz, historia sortuz: kooperatiba gehiago, berdintasun gehiago" lelopean. EGABeko presidentea bertan egon zen. Ekitaldian Nerea Melgosa Eusko Jaurlaritzako Justizia, Berdintasun eta Gizarte Politiketako sailburuak parte hartu zuen.



3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

14 **Bilbao Metropoli 30 "INSPIRING A REVOLUTION IN URBAN INNOVATION"**

Presidentea eta idazkari nagusia Bilbao Metropoli 30 Elkarteak antolatutako "Inspiring a revolution in urban innovation" jardunaldian egon ziren Bilbon.

Ekitaldiaren helburua Urban Revolution Aurrera Manifestuaren proposamenaren ildo nagusiak aurkeztu eta manifestuaren 4 atalak (Ekologia, Ekonomia, Gizarte eta Estrategia) jorratuko dituzten mahai-inguruak egitea zen.

APIRILA

3 **Espainiako ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeen bilera, online**

Presidenteak eta idazkari nagusiak parte hartu zuten bileran, eta RTAren Orientazio Batzordea prestatzea izan zen helburua. Batzorde hori 2024ko maiatzaren 17an izan zen, Rennesen.

22 **Arizmendiarieta Sariak - Bizkaia 2023 sariak ematea**

Idazkari nagusia bertaratu zen, Arizmendiarieta Fundazioak gonbidatuta. Sariak banatzeaz gain, "Talentua nola erakarri, landu eta fidelizatu" gaiari buruzko mahai-ingurua egin zen, Deustu Business Alumnirekin batera antolatua.

23 **ERRIOXAKO EGAB egoitzaren inaugurazioa**

Errioxako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gonbidatuta, presidentea Errioxako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen egoitza berriaren inauguraziora joan zen Logroñon. Gonzalo Capellán autonomia-erkidegoko presidentea eta Marta Fernández Errioxako parlamentuko presidentea ere bertan egon ziren. Ekitaldi horretan hizlari gisa parte hartu zuten Antón Costas Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidentea eta M.^a Emilia Casas Konstituzio Auzitegiko presidente ohiak.



25 **EGAB autonomikoen eta Espainiakoaren urteko topaketa**

26 Kataluniako CTESCK antolatutako topaketa Bartzelonan izan zen, eta presidentea eta idazkari nagusia bertaratu ziren. Bilera horretan, EGABen lan-jardunaldiaz gain, bi hitzaldi eman ziren: bata lanbide-heziketari buruzkoa eta bestea Next Generation funtsen egoerari buruzkoa.



MAIATZA


8 **CEBEK, enpresen topaketa eta sari-banaketa**

Maiatzaren 8an, presidentea eta idazkari nagusia Bilboko Euskalduna jauregian izan ziren Enpresen Topaketan eta CEBEK 2024 sarien banaketan.

3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

10 **Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna**

Presidente eta idazkari nagusia Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Egunean egon ziren, Bilboko Itsas Museoan. Iñigo Urkullu lehendakariak ere parte hartu zuen, eta Gonzalo Rodríguez Aguirregoitia EGABeko kontseilari ohiari eman zitzaion 2024ko Sareen Saria.



15 **CESER Nouvelle – Aquitaine “Les fonds européens et les territoires de Nouvelle-Aquitaine”**

Presidenteak hizlari gisa parte hartu zuen Akitania Berriko CESERek Bordelen antolatutako jardunaldian. Bertan, Euskadiko EGABren eta CESERen arteko aldebiko lankidetzaren bilakaera, egungo egoera eta etorkizuneko aukerak azaldu zituen. Jardunaldiaren aurretik, lan-bilera bat egin zuen Akitania Berriko CESEReko presidentearekin eta zuzendaritza-taldearekin.



17 **RTAren Orientazio Batzordea**

RTAren Orientazio Batzordeak egun horretan egin zuen bileran, Rennesen, presidenteak eta idazkari nagusiak parte hartu zuten. Bileran, RTAren 2024/25erako lan-programa onetsi zen, eta aldi horretarako lehen lan-gaitzat hartu zen RTAk makroeskualde atlantiko baten sorrerari buruz duen jarrera. Euskadiko EGABeko presidentea horretarako sortutako lantaldeko presidente izendatu zuten.



24 **ASLEren Batzar Nagusia**

Idazkari nagusia ASLEren Batzar Nagusian izan zen, Bilboko Iberdrola Dorrean.

30 **ADEGI enpresaren eguna**

Presidente eta idazkari nagusia Donostian egon ziren 2024ko Enpresaren Egunean. Ekitaldi horretan, ADEGI sarien kategoria guztiak eman ziren.

UZTAILA

2 **Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzarekin**

Presidente eta idazkari nagusia Lehendakariaren egoitzan bildu ziren Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi Marian Elorzarekin eta Europako Gaietarako zuzendari Mikel Antonekin, RTAren baitan makroeskualde atlantikoari buruzko talde bat sortu zela jakinarazteko, Euskadiko EGAB buru izanik, eta proiektu horren egoeraren berri emateko.

3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

2 **EHUko Udako Ikastaroen inaugurazioa**

Presidenteak, Jon Barrutia Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko presidentearekin batera, EHUn 2024ko udako ikastaroen inaugurazio-ekitaldian egon da, Donostiako Miramar jauregian.

3

4

5



EGAB UIMP Santander topaketa

Presidenteak eta idazkari nagusia Espainiako EGABek urtero Santanderreko Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatearen udako ikastaroen esparruan antolatzen duen topaketara joaten dira, Memoria Sozioekonomikoa aurkezteko.

9

RTAko lantaldearen lehen bilera makroeskualde atlantikoari buruz

Bilera online egin zen, eta Euskadiko EGABeko presidentek deitu zuen. Bertan, txostenaren esparrua, metodologia eta lan-egutegia mugatu ziren.

16

2023ko Memoria Sozioekonomikoa Lehendakariari aurkeztea

Presidenteak eta idazkari nagusiak, Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko presidentek Jon Barrutiarekin batera, Euskadiko 2023ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu zioten Imanol Pradales lehendakariari eta Ogasun eta Finantzetako sailburu Noél D'Änjouri.



Iturria.- Irekia Gobierno Vasco

17

2023ko Memoria Sozioekonomikoa Eusko Legebiltzarrari aurkeztea

Bakartxo Tejeriak, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, presidenteari, idazkari nagusiari eta Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko presidenteari harrera egin zien, eta 2023ko Euskadiko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu zioten.



3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

19



2023ko Memoria Sozioekonomikoa aurkezteko prentsurrekoa

Euskadiko EGABeko presidentek eta Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko presidentek 2023ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu zuten EGABren egoitzan egindako prentsurrekoan.

IRAILA

5

EHUren udako ikastaroa, 2023ko Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena

Eusko Legebiltzarreko lehendakari Bakartxo Tejeria, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburu Mikel Torres eta Javier Muñecas Donostiako Miramar jauregian izan ziren, Euskadiko EGABk 2023ko memoria sozioekonomikoa aurkezteko antolatutako udako ikastaroaren irekieraren buru izateko.

Ekitaldi horretan, Jon Barrutia Memoria Sozioekonomikoaren Batzordeko presidentek memoriaren edukia azaldu zuen. Ondoren, Arantza Estefanía EGABeko sailburu adituak moderatutako mahai-inguru bat egin zen memorian landutako hainbat gairi buruz. Bertan, Helena Francok, Guillermo Dorronsorok eta Imanol Zuberok parte hartu zuten. Ekitaldiari amaiera emateko, Laura Marrónek, Adimen Artifizialaren Euskal Zentroko (BAIC) zuzendariak, adimen artifizialari buruzko hitzaldia eman zuen.





CES
EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazotarako Batzordea



U I K

UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO
SUMMER COURSES

EGAB TOPAKETA - ENCUENTRO CES VASCO

**2023 EAE-KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA
MEMORIA SOCIOECONÓMICA DE LA CAPV 2023**

2024.09.05

Aurrez aurrekoa
Presencial
Gaztelera / Español

PALACIO MIRAMAR JAUREGIA
Pl. de Miramoncha 48
Donostia - San Sebastián
Gipuzkoa

PARTE HARTZEN DUTE/ INTERVIENEN

JON BARRUTIA	BARRUTIA
GUILLERMO DORRONSORO	DORRONSORO
ARANTZA ESTEFANIA	ESTEFANIA
HELENA FRANCO	FRANCO
IMANOL ZUBERO	ZUBERO

**ADIMEN ARTIFIZIALARI BURUZKO HITZALDI MAGISTRALA
CONFERENCIA MAGISTRAL SOBRE INTELIGENCIA ARTIFICIAL**

LAURA MARRÓN

3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

11 **Europa Foruma-Euskadi Tribuna, Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin**

Presidentea eta idazkari nagusia Europa Foruma-Tribuna Euskadi forumean egon ziren Bilbon, eta Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakariak hartu zuen parte.

12 **EHUko 2024-2025 ikasturtearen hasiera**

Presidentea EHUko 2024/2025 ikasturtearen hasierako ekitaldian izan da Leioako campusean.



18 **MUko ikasturtearen hasiera**

Presidentea Arrasaten izan da Mondragon Unibertsitateko 2024/2025 ikasturtearen hasierako ekitaldian.

25 **DUko ikasturtearen hasiera**

Presidentea Deustuko Unibertsitateko 2024/2025 ikasturtearen hasierako ekitaldian izan da Donostiako campusean.

URRIA

3 **RTAren Europako I. Foroa, Huelvan**

4 Presidentea eta idazkari nagusia RTAren Europako lehen Foroan izan ziren Huelvan, Andaluziako EGABek antolatua "Jasangarritasuna, energia eta azpiegiturak" izenburupean.



24 **Euskadiko Enpleguari buruzko VII. Kongresua**

Presidentea Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak antolatutako Enpleguari buruzko VII. Kongresuan izan zen, Gasteizko Europa Jauregian.

AZAROA

7 **Foro Transmodalaren XVI. Edizioa**

Presidentea Gasteizen izan zen Arabako Merkataritza Ganberak antolatutako Foro Transmodalaren XVI. Edizioan.

7 **Confebask Enpresa Topaketa - Laneko absentismoa**

Idazkari nagusia Confebaskek Adegí, Cebek eta SEArekin lankidetzan antolatutako "Lan-ezintasunagatiko absentismoaren berrikuspina eta analisia Euskadin" Enpresa Topaketan izan zen.

3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

13 **Europa Foruma, Raúl Arza Euskadiko UGTko idazkari nagusia**

Presidente Europa Foruma-Euskadi Tribuna forumean izan zen Bilbon. Euskadiko UGTko idazkari nagusi eta Euskadiko EGABeko kontseilari Raúl Arzak hartu zuen parte.

18 **“Convenio / Concierto. El sistema financiero y tributario de las Haciendas Forales” liburuen aurkezpena**

Noël D'Anjou Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantzetako sailburuak gonbidatuta, presidentea Mikel Aranburu irakaslearen “Convenio / Concierto. El sistema financiero y tributario de las Haciendas Forales” liburuen aurkezpenean izan zen Bilbon.

19 **Txemi Cantera Saria Ekonomia Soziala**


Presidente ASLEK antolatutako nazioarteko sari honen banaketan izan da Bilbon, eta aurten SUTARH, S.A. enpresari egokitu zaio.

20 **RTAren batzorde betearazlea**

Presidente eta idazkari nagusia online bertaratu ziren RTAren batzorde betearazlearen bilerara, gonbidatu gisa. Bilera horretan, besteak beste, makroeskuale atlantikoari buruzko lanaren egoera aztertu zen.

21 **Espainiako EGABen txostenaren aurkezpena: Europar Batasunaren gobernantza ekonomikoa**

Euskadiko EGABek jardunaldi bat egin zuen Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Europar Batasunaren gobernantza ekonomikoki buruzko txostena aurkezteko. Antón Costas Espainiako EGABeko presidentek aurkeztu zuen txostena. Gainera, Europar Batasuneko zenbait adituk EBren orainari eta etorkizunari buruzko hainbat gai interesgarri azaldu zituzten.



25



Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuaren agerraldia

Noël D'Anjou Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantzetako sailburua eta bere taldea EGABen osoko bilkuran agertu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025erako aurrekontu orokorrean proiektua azaltzeko.

3. KAPITULUA Jarduera Instituzionala

ABENDUA

5 Makroeskualde atlantikoari buruzko lantaldearen bigarren bilera

Bilera online egin zen, eta korrelatoreen dokumentu-proposamenari buruz eztabaidatu zen.

9 Gobernuko delegatuaren bisita

Marisol Garmendiak, Gobernuaren ordezkaria Euskadin, Eduardo Auzmendi kabinete-buruarekin eta Jaime Fernández aholkulariarekin batera, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen egoitza bisitatu zuen. Presidenteak eta idazkari nagusiak egin zieten harrera.

10 Soldata-arrakalari buruzko Nazioarteko III. Kongresua

Idazkari nagusia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak antolatutako Soldata-arrakalari buruzko III. Kongresuan izan zen Gasteizen.

10 Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuorde Alfonso Gurpeguiren agerraldia Osoko Bilkuran

Alfonso Gurpegui Eusko Jaurlaritzako Gizarteratzeko sailburuordea eta Sara Buesa Lanbideko Enplegu eta Gizarteratzeko zuzendaria Euskadiko EGABen osoko bilkuran agertu ziren, "Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatu beharreko enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektua" azaltzeko, EGABi horri buruzko irizpena eskatzeko.





4. KAPITULUA Komunikazioa eta argitalpenak

Komunikazioa
Argitalpenak

4. KAPITULUA Komunikazioa eta argitalpenak

Komunikazioa



@CESEGAB sare sozialak

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sare sozialetan parte hartzen du Xen, Facebooken eta LinkedIn-en dituen kontuen bidez, eta bere jarduerekin lotutako hainbat alderdiren berri ematen die jarraitzaileei.

Informazio berekiaz gain, zerrenda irekien bidez biltzen eta aurkezten du intereseko erakunde eta eragile ekonomiko eta sozial ugari eta Batzordea osatzen duten erakundeek sare sozial horri eskainitako informazioa.

Era berean, garrantzitsutzat jotzen dituen hirugarrenen informazioak hautatzen eta zabaltzen ditu, erakunde aholku-emaila honen interes-esparruei dagokienez.



Webgunea

Web orrian Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari, haren jarduerari eta argitalpenei buruzko informazioa eskaintzen da.

Horren bidez, EGABek garatzen dituen jardueri buruzko informazio eguneratua lor daiteke, hala nola irizpenak ematea, txostenak eta azterlanak egitea, hitzaldiak antolatzea eta abar.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak argitaratutako lan guztiak sarrera librekoak dira, eta PDF formatuan deskarga daitezke, dokumentuen eta lanen atalean.

Argitalpenak

2024 urtean zehar argitalpen hauek txertatu ditugu gure web-orrian www.cesegab.com PDF eta EBOOK formatuan:

- [Jardueren Txostena 2023](#)
- [Memoria Sozioekonomikoa 2023](#) eta [Laburpena eta Gogoetak](#)
- **Irizpenak:**

101/2024	Euskal ondare-zuzenbidearen eta familia-ondarea eta -enpresa babestearen arloko berezitasunei buruzko LA
102/2024	Nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien erantzukizunpeko adierazpenaren erregimena arautzeko, eta EAEko Nekazaritza eta Elikagaigintza Industrien Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duen Dekretu-proiektua
103/2024	EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 Estrategia
104/2024	Portuetako Udal Kontseiluak sortzeko Dekretu-proiektua
105/2024	Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako dirulaguntza arautzen duen DP
106/2024	Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzen eta onartzen duen AP
107/2024	Etxeko animaliek eta gatibu dauden animalia basatiek EAEko ikuskizun publikoetan parte hartzeko animalien ongizaterako irizpideak arautzen dituen DP
108/2024	DP farmazia-bulegoetan giza nutrizioaren eta dietetikaren atala arautzen duena
109/2024	EAEko abeltzaintza-ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezarzen dituen eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duen DP
110/2024	Erlezaintzaren antolamenduari buruzko DP
111/2024	Adikzioei buruzko Euskadiko Informazio Sistema sortzen duen DP
112/2024	Erabilera turistikoko etxebizitzetara eta etxebizitza partikularreko logelei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua aldatzen duen DP
113/2024	MERKASARETZA, Merkataritza Laguntzako Puntuak (MLP) Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duen DP